

ttipi ttapa

2002ko ekainaren 20a • XXII. urtea



Baztango Plan Estrategikoa

04

Baztango garapen ereduia zehaztea eta hori gauzatzeko abiatu beharreko egitasmoak zein diren jakiteko, Plan Estrategikoa egin nahi du Balleko Udalak.



Lafitte Azkaindik Everest-era

28

Maiatzaren 17an Everest gailurra oinkatu zuen Frédéric Lafitte azkaindarrak. «Kaskoan nintzelarik Shishako espedizioarentzat izan nuen pentsamendua» dio.

Florentino Ibarra azken guante egilea

03





*Doneztebeko
Udalak
besta zoriontsuak
opa dizkizue
herritar eta
bisitari guziei*

**MUEBLES
A
METS**

larunbat arratsaldetan
irekia
4000 m² erakusketa



Sukaldeak, Egongelak, Logelak, Bainugelak



BISITATU GURE
WEB ORRIA
www.mueblesamets.com

Sarrera BERAtik da Sastrin karrika, 3.2 - 3.4 Alkaiaga
31789 LESAKA Tfnoa. 948 630 537 Fax. 948 631 443

DATUAK...

- 78 urte ditu Florentino Ibarra Beintzako guante egileak eta 18 zituenean egin zuen lehendabiziko guantea.
- Ogibidez zapatagilea izan da. Orain erretiratu da eta afizioz aritzen da guanteak egiten. «Honek ez du dirurik ematen. Guante bakoitzak hamar orduko lana du».
- Laxoa eta paxaka txapelketetan erabiltzen dira guanteak, baina gehien bat apaingarri gisara saltzen dira. Florentino da guanteak egiten dituen azken eskulangilea.



Florentino IBARRA *Beintzako guante egilea*

EDURNE ZUBIETA

«Pena da baina nik uzten dudanean ez da guante egilerik geldituko»

Joseba OLAGARAI

Zein da laxoako guantea egiteko prozesua?

Larrua kisura bota eta beratzen denean ilea kentzen dugu. Gero puskatu egiten dugu bere tamainan eta egurrezko horman montatu, lehortzen uzteko eta forma hartzen joateko. Lehortzen denean biltzen joaten da larru guzia eta dituen harrotasun guziak bere gisara joaten zaizkio. Hai-zearen arabera abudoago edo beranduago idortzen da larrua. Mendebalarekin lau-bortz egun behar ditu eta idorra egiten badu, abudoago eginen da, bizpahiru egunez. Gero, idortu denean eta forma hartu denean, iltzeak kendu eta bigarren kapa ematen zaio. Hau idortzen denean eskutokia paratzen zaio guante-ari, pilotariak eskua sartuko duen lekua. Eskularru hori neronek egiten dut, baina bertze larru batekin. Larru gogorra behar da, aretzearena, kurtitzekoa da eta mataderitik erosten dut. Eskularruarena ere aretzearena da, baina fabrikatua eta ez da gogortua. Gainera kapari josten zaio eskularrua, barreneko kapari pun-

«Erakusteko prest nago, izan dira bizpahiru etorri direnak, baina ez dute egunik galdu nahi. eta ikasteko denbora galdu behar da»

tuak ez agertzeko. Zaila da, itxekiak egoten direlako kapa guziak, baina pazientziarekin lortzen da.

Nola ikasi zenuen guanteak egiten?

18 urterekin egin nuen lehendabiziko guantea, 1939-1940 urtea zela uste dut. eta hirutan hogeitaz eta gehiago pasatu dira. Nire aita zenaren lehengusu batek erakutsi zidan. Hura maisu ona zen. Orduan berak bakarrik egiten zituen guanteak. Gero bi baginen, ni soldadu joan nintzenean bertze doneztebear batek ikasi zuen. Orain nik bakar-bakarrik segitzen dut. Baztandar bat etortzen da ikastera, baina hemen ez baita sosarik irabazten bertzetan bezala. Noiznahi etortzen da, pena ematen dio hau galtzea. Ni erakusteko prest nago, izan dira bizpahiru etorri direnak, baina ez dute egunik galdu nahi. Baina

hemen denbora galdu behar baita ikasteko!

Guanteak kirolerako edo adorno-tarako saltzen duzu gehien?

Eskulan erakusketara joaten gara herri aunitzetara eta eske ere etortzen dira. Laxoa elkartetik eta Iparraldetik etortzen dira. Feriatan dekoratze-ko ere aunitz saltzen dira. Guk ikasi genuenean egiten ziren laxoa txapelketak herri bat bertzearekin. Iparraldetik etortzen ziren Baztanera... Gero arront gelditua egon zen, 30 urtez, arront atzendua eta orain berriro hasi da. Enpeinu handia dute eta lehengo ohiturak mantendu nahi dituzte. Ari da pixka-pixka, baina zaila izanen da lehen haina egitea. Iparraldean gehiago izanen da, errebotean aritzen dira eta etortzen dira ikastoletatik umeak, guante tikiak eramaten dituzte, tikitatik ohitzeko.

Zenbatean saltzen dituzu?

13-14.000 pezeta kobratzen dugu guante bakoitzeko eta materialak bakarrik lau-bost mila pezeta balio du. Ez da dirurik gelditzen ordu guziak kontatuz gero. Igual irauten dute berrogei urte, ez dira hautsitzen.



ARGAZKIA: RAKEL GOÑI

Plan Estrategikoa egiten hasteko Baztanen diagnostikoa egin du LKS enpresak. Aurkezpen ekitaldian, enpresa horretako Cristina Mujika, Patxiku Oiartzabal Baztango alkatearekin eta Cederna-Garalureko Izaskun Abrielekin.

EGUNGO EGOERA AZTERTU ETA SOLUZIOAK EMANEZ

Baztango etorkizunaren ardatzak finkatu nahi ditu Plan Estrategikoak

Baztango garapen eredia zehaztea eta hori gauzatzeko abiatu beharreko egitasmoak zein diren jakiteko, plan estrategikoa egin nahi du Udalak. Horretarako LKS aholkularitza enpresak ballearen diagnostikoa egin du Cederna-Garaluren laguntzaz, bere ahuleziak eta sendotasunak aztertzearekin batera, etorkizunera begira dituen mehatxuak eta aukerak azalduz. Abiapuntu hau, Planaren Kontseilu Orokorrarekin adostu zen apirilaren 30ean.

Aitor AROTZENA

Baztango garapen sozial eta ekonomikoari buruzko plan estrategikoa egin nahi du Udalak. Plana egiteaz LKS enpresa arduratuko da, eta Cederna-Garalur erakundearen laguntzarekin herritarren partehartzea oinarri izanen duen plan estrategikoa eginen dute. Lehendabiziko urratsak emanak dituzte. Baztango diagnostikoaren ondorioak biltzen dituen txostena egin dute eta apirilean aurkeztu zuten jende aitzinean. Aberastasuna eta enplegua sortzen ahal duten sektore, esparru eta jardunaldien azterketa egiten da, eta bidanabar, herritarren bizi-kalitatea aztertu.

Diagnostikoa LKSko eta Garalurreko teknikariek egin dute. Horretarako zinegotziekin bildu dira, eta Udaleko batzordeetatik eskuratutako informazioaren bidez, hainbat sektore-ri buruzko azterketa egin dute. Baz-

tanek duen antolamendu berezia ikusita, herrietako alkateekin bildu dira. Eginkizun horretarako hainbat datu estatistiko ere aztertu dituzte.

Diagnostikoa egiteko eta plan estrategikoaren prozesua gainbegiratzeko, Kontseilu Orokorra osatu dute. Orotara, hamahiru kidek osatzen dute: Udaleko talde politikoetako ordezkariak, hezkuntza arloko ordezkariak, gizarte eragileak... Ekarpinak egiteaz gain, prozesuan gutienezko adostasuna bermatzea izanen da Kontseiluaren zeregin nagusia.

Egoeraren diagnostikoa eginda, hurrengo urratsa erronka estrategikoa zehaztea da. Hori zehaztuta, helburu horiek lortzeko ildo estrategikoaren definitzea etorriko litzateke. Horren arabera, Baztango egoera aldatzeko bidean, hiru ildo nagusi ikusi dituzte: lehen sektorearen sendotzea, enpresa tiki eta ertainen sustapena,

eta hemengo ezaugarrietara moldatzen den turismoaren bulkatzea. Horrekin batean, bertze hiru ildo osagarri ikusi dituzte: natur ondare, giza baliabide eta azpiegiturei buruzkoak. Ildo bakoitzaren helburu eta bitartekoak zehazteko, gizarte eragileekin mahai teknikoak eratuko dituzte.

Plan estrategikoa urte bukaerarako egin nahi dute, eta 2006 urte arteko iraupena izanen du.

BALIABIDE EKONOMIKO ETA SOZIALAK


Baztandarren %18a abeltzaintzan eta nekazaritzan ari da, batez ere behi eta ardi azienden hazkuntzari emana. Normalean, esplotazio tailak dira eta gazteek ez dute lan honetan segitzeko asmorik izaten. Gainera, guti dira Baztanen ziklo osoa (produkzioa-transformazioa-salmenta) ixten duten nekazal esplotazioak. Baztango baserrietako produktuek balorazio handia dute merkatuan, baina ez da nahikoa aprobetxatzen, balleko produktuen kalitatea ziurtatzeko agiririk ez dagoelako. Honela, kompetibitatearen, dibertsifikazioaren eta elkartzearen beharra azpimarratzen du LKSren diagnostikoak. Industriak apenas indarririk ez duenez, bizilagunen erdia zerbitzu sektorean ari da. Batez ere zerbitzu publikoek (osasun zentroak, ikastetxeak...) dute indarra, baina potentzialtasun handia ikusten zaie turismoarekin lotutako jarduerari. Gaur egun, gehien bat epe jakin batzuetan (Aste Saindua, uda...) eta egonaldi laburrak egiten dituzten turistak datoz Baztanera. Landa etxeen garapenean aitzindari izan zen Baztan eta gaur egun Q ziurtagiria duten bartz etxe baditu, baina halere, dituen turismo baliabideak hobeki aprobetxatu nahi dira Plan Estrategikoarekin.

POPULAZIOA BEHEITI, ADINA GOITI



ARTXIBOKOA

POPULAZIOA BEHEITI



LKSk egindako diagnostikoak, Baztango giza baliabideak aztertu ditu. Gaur egun 7.741 bizilagun ditu balleak eta ikerketaren arabera, populazioaren jautsiera prozesu baten barnean dago. Gero eta bizilagun gutiago ditu Baztanek, alde batetik jaiotze tasa baxuak direlako eta populazioa pittanaka zahartzen ari delako. Izan ere, 65 urtetik goitiko bizilagunak Baztango populazioaren %22a dira. Ikerketak dienez, gazteek Baztanen bizitzen gelditzeko zailtasunak dituzte, eta ho-

Baztango bizilagunen %22a 65 urtez goitiko da. Eskuineko koadroan ageri da azken hamarkadetan populazioak izan duen jautsiera eta 2012. urterako dagoen aurreikuspena.

rrek, despulatze arazoak ekartzen ahal ditu etorkizunean, batez ere Elizondotik urrunen dauden herri tailetan. Plan Urbanistikoan egiten diren populazio proiektzioen arabera, 2012. urtean 7.363 bizilagun izanen ditu Baztanek.

Baina bizilagunak galtzeak bertzelako arazoiak sortzen ditu. Bizilagunekin batera, ekonomikoki eta sozialki, dinamisismoa galtzen da, bailara uzten dutenak gehien mugitzen diren gazteak baitira. Ballean lanerako aukera handiegirik ez da-

goenez –batez ere goi mailako ikasketak egin dituzten emakumeentzat–, formakuntza onena eta ikasitako lanbidean aritzeko kezka duten gazte gehienek kanporako bidea hartzen dute. Honela, gazte hauek ballearekiko duten lotura ahultzen da eta kanpoan bizitzen jartzeko arrisku handia da. Horretan zerikusia du, noski, eguneroko gan-erorian eman beharreko denbora edo etxebizitza eskuratego zailtasunak –etxebizitza sozialak egiteko asmoa baldin bada ere–.

Izaskun ABRIL CEDERNA-GARALUR

“Baserria, industria ttiki-ertaina eta turismoa indartu nahi ditu Planak”

Zein ildo nagusitik gauzatu da Baztango ekonomia-aren etorkizuna?

Sei arlo bultzatu nahi ditu Planak, hiruk lehentasuna izanen dute eta bertze hiruak osagarriak izanen dira. Funtsezkoa, lehen sektorea indartzea da. Europan gero eta pisu guttiago du, egia da, baina hemen baserria garrantzitsua da. Ez da bakarrik jarduera

ekonomiko bat baizik baztandarren izaeraren zati bat, hemengo bizimoduari lotua dago baserria. Momentu kritikoa dago orokorrean, baina lehen sektorean ari den jendearen baldintzak hobetu nahi dira. Hori nola lortu aztertu behar dugu mahai teknikoan. Bigarrenik, enpresen sustapena bultzatu nahi da, bai industriak, baina baita bertze

arlokoak, ttiki eta ertainak batez ere. Hausnarketa bat egin behar da zein aukera dauden ikusteko eta daudenak aprobetxatu. Hirugarrena, turismoa izanen litzateke. Azkeneko urteetan landa turismoak hartu duen garrantzia aztertu dugu. Hemengo egoera eta merkatuan ematen ari diren aldaketak ikusi eta horren arabera egiten da.

Lege Gordailua: NA-1324/85
ISSN: 1578-4673
Franko Itundua: 34/79
Tirada: 7.100 ale

ttipi-ttapa aldizkaria
Herriko Etxeko Plaza, 1
E-31780 BERA (Nafarroa)
Tfnoa:(+34) 948 63 11 88
Faxa:(+34) 948 63 12 91

www.topagunea.com
ttipi-ttapa@topagunea.com

Jabea: ttipi-ttapa fundazioa.
Presidentea: Pello Apezetxea.
Kudeatzailea: Joxemanuel Irigoien.
Zuzendaria: Aitor Arotzena.
Publizitate: Kulturkari, S.L.
Administrazioa: Amaia Goia.
Erredakzioa: Aitor Arotzena, Rakel Goñi.
Berriemaiak: Mikel Illarregi, Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Peio Zestau, Iban Isasi, Patxi Iriarte, Jaione Otxandorena, Alba Fernandez, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Juan Carlos Mortalena, Ana Mari Etxeberri, Frederick Berruet, Angela, Ihintza eta Eneko, Nerea Altzuri, Oskar Txopereña, Joseba Olagarai, Nerea Mitxelorena, Aitor Arotzena, Asier Gogortza, Rakel Goñi.
Kolaboratzaileak: Rakel Amigo, Euskal Herriko Kontsumitzaileen Antolaketa...
Inprimategia: Gertu. **Erakunde Laguntzaileak:** Bera, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi eta Sarako udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarte, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea, Zugarramurdiko Akelarre Elkarte...

Harpidetza sariak:

Hego Euskal Herria	21 €
Espainia	21 €
Ipar Euskal Herria	33 €
Europa	33 €
Amerika	103 €
Baztan, Urdazubi, Malerrek, Leitza eta Areso	18 €



Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du

• KOLABORAZIOAK •

Erretzeko debekua leku publikoetan



Erretzen ez duen jendea dagoen lekuetan ez dutela erre behar konturatu behar dute erretzaileek, horretarako informazioa eman behar da

Maite URKIA Bortzirietako erizainen burua

Tabakoari aurre egiteko Foru planaren proiektua ongi iruditzen zait orokorrean, osasun arlotik begiratuta. Gainera, nik ez dut erretzen eta edozein lekura joaten zarela, erretzen dutenek ez dute baxterre errespetatzen erretzaileak ez direnak, beraz, ongi. Nafarren hirutik bat erretzailea da, eta hori datu kezagarria da osasun aldetik. Datuen arabera, azken urteetan gizonezko erretzaileen kopuruak beheiti egin du eta emakumeenak goiti. Ez dakit zergatik izan den, ideiarik ere ez, baina hori nabari dut baita lagun artean ere. Leku publikoetan eta pribatu batzuetan tabakoa erretzea debekatu eginen du plan honek eta erabakiarekin ados nago. Erretzaileen eskubideak mugatzen dituela erraten dute, baina orain arte erretzen ez genuenak ez genuen aukerarik. Kerik gabeko leku bakarrak gure etxean edo kanpoan genituen. Orain arte hori jasan behar izan dugu, ezin ginen gustora egon hainbat lekutan. Orain arte guri egin digutena, erretzaileei egitea orain ez zait gaizki iruditzen. Halere, ez zait iruditzen neurri hauekin tabakoarengatik hiltzen den pertsona kopurua murriztuko denik. Hori baino neurri zabalagoak hartu behar dira: ttiki-ttikitatik tabakoak eragiten dituen kalteak erakusten saiatu behar dugu, esplikatu egin behar da tabakoa kaltegarria dela eta informazioa behar da hasiera-hasieratik. Adibidez, tabakoa uzteko planetan sartzen diren erretzaileei 20.000 pezeta-ko dirulaguntza emanen zaiela agertzen da plan horretan. Beraien osasunerako mesedegarria den zerbaitegatik dirua jasotzea gauza ona izan beharko luke, baina ez dakit bizioa dutenek horrekin aski izanen dute. Bertze neurri batzuk ere hartzen ahal dira, baina garrantzitsuena da jendea informazioa ematea, jendearekin horri buruz solastea... hori hagitzen ongi etorriko litzateke: debekatu beharrean, erretzaile bakoitza gai izatea errateko «hemen bada jendea ez duena erretzen, beraz nik ere ez dut erre behar». Horretara ailegatzeko bagara, ez da guti izanen.



Erretzea bakoitzaren ardura da soilik ingurukoei kalterik sortzen ez denean

Joxe ITURZAETA Gorpuz Heziketa irakasle

Erretzaileek ez erretzaileei kalteak sortzen dizkigutela nabaria da: ohiturak, osasuna, une desatseginak... Hau ez du inork ukatzen. Ez da egia hemen bi jarrera ezberdinen eskubideek elkarren kontra topo egiten dutenik, parekotasun egoera batetan ez gaudelako:erretzeak ez erretzailearen gain honek bilatzen ez dituen ondorioak sortzen ditu, baina ez erretzeak ez du bertzearen gain inongo ondorioirik eragiten. Horregatik, administrazioak bere ardurapean dauden esparruetan, ez erretzaileen eskubideak bermatzera derrigortuta dago. Ingurukoei kalterik sortzeko arriskurik ez dagoenean soilik, erretzea bakoitzaren ardura bihurtzen da. Honek, erretzaileendako toki espezifikokoak sortu behar direla suposatzen duen ala ez, erretzaileek erran beharko dute. Eremu publikoetatik aparte, argi dago bakoitzak bere etxean konbidentzi arauak ezarri edo ingurukoekin adosteko jaun eta jabe dela, eta horretara joaten direnak neurri edo adostutako horiek errespetatu beharko dituzte. Egoera honetan, bakoitzak erretzeak edo ez erretzeak zer eman edo kentzen dion baloratu beharko du. Nik behintzat, ez dut ezagutzen erretzean lortzen ahal den etekinik, erregabe, bertze bide batzuetatik lortzea ezinezkoa dena.



Dudan bizio bakarra 20.000 pezetetatik utzi? Bi milioi balira sikiera!

Ritxi GARRIDO Doneztebeko erretzailea

Tabakoa ekarri, publizitatea egin... eta orain debekatu. Tabakoa droga gisara aurkeztuko balute debekatua egonen litzateke, ados, baina hasieratik hori garbi utzi beharko zuten. Erretzaileak leku berezi batean eduki behar bagaituzte, ez da denentzako lekurik izanen. Tabakoa droga da, garbi dago, baina biriketako arazoa duenak erretzen ari bada, astazakil bat izateaz aparte, berak izanen ditu ondorioak. Niri medikuak ez nuela erretzen erran zidan eta nik baietz, egunean bi pakete. Baina, nire osasun-eragina duen momentuan utzi eginen dut. Dudan bizio bakarra da, bertzela zer egin behar dut? edan edo pastillaz lepo egin! Emakumeek gero eta gehiago erretzen dute. Gizarte marxista honetan gaizki ikusi da emakumeek erretzea, baina hori akitu da. Errespetua behar da bi aldeetatik, erretzaile eta ez erretzaileen artean. Ez duzu erre behar museo batean, ospitale batean edo antzoki batean... Baina lege honek guzior eskubideak mugatzen ditu. Nik berari esker dut bizio hau. Tabakoarengatik hildakoak aipatzen dituzte, inoiz ez alkoholaren eraginez zirrosiarekin hil direnak. 20.000 pta ematea uztegatik txorrada bat iruditzen zait, 2 milioi balira! Hain errexa balitz, jendeak utziko luke.

• IRAKURLEAK MINTZO •

Ilegalizazioa:
Nork, nor...?

Nork:

- Segunduro, minutuero, orduero, egunero... milaka haur gosez hiltzera eta hamaika herri pobrezia larrinera kondenatzen dituztenek.
- Munduko ordena arma nuklearren, kimikoen, biologikoen, informatikoen... bortxaz eta mehatxuz mnantzen dutenek.
- New Yorkeko 2001eko irailaren 11ko sarraskia antolatu edo guttienez ixilpean baimendu zutenek Afganistan, Palestina eta munduko disidentzia ororekin akitzeko.
- Multinazionalen diktadura ezartzen dutenek, mundua aberats dozena batzuen esku utziz.
- Dirua edo ekonomia gizakiaren aintzinetik jartzen dutenek.
- Kulturak amerikanizatu, gizakiak klonatu, eta herri zein hizkuntza gutxiak museoan nahi dituztenek.
- Biodibertsitatea manipulatu, bizidunak paten-

- tatu eta transgenikoekin elikatu nahi gaituztenek.
- Francoren seme-alabek, orduko diktadurari demokrazia mozorroa jarri eta itsuendako ere garbi kendu dutena azkenaldi hontako lege eta dekretu ugarietz.
- G.A.L. sortu zutenek.
- Etorkinak Gibraltarren itozten, kriminalen gisa tratatzen edo esklabutzara eramaten dituztenek.
- Narkotrafikoa, proxenetismoa, ume edo emakumeen trafikoarekin zigorgabetasun osoz gizenzen eta aberasten direnek.
- Milaka milioi pilatzen dituztenek langileen prekaritate eta lan baldintza kaxkarrei esker.
- Diru publikoa Lagunak bazkatzeko edo sakelak betetzeko erabiltzen dutenak.
- Etikaz ta demokraziaz egunero mintzo eta aldi berean nazioarteko arautegian aitortzen diren oinarri-oinarrizko giza eskubideak urratzen dituztenek.
- Garapenaren izenean

abiadura haundiko trenez, urtegiz, zentral termikoez... ito nahi gaituztenek

-Gure historia, hizkuntza, nortasuna, eta kontzientzia ebatsi dakutenek

.....

Nor:

-Bertze mundu bat posible egingen laguntzen dugunok norberagandik, norbere etxetik, norbere herritik hasiz....

Eta orainik entelegatu ez badugu:

Hau bada legalitatea, eta legalki ilegalizatu nahi bagaituzte, legalitate hontan legezko legerik ilegalizatu ezin denez ilegalitate bihurtzen da eta ondorioz legalizatzen gaitu legez!!

Edo ez al gara jende illegala?

Mikel Alzuart Zaldain
Batzango Batasunako
zinegotzia eta bigarren
alkate-ordea.

Osasunbidea eta euskara

Gutun honen bitartez, Malerreka Mankomunitateko Euskara Batzordeak Osasunbideak euskaldunekiko erakutsi duen errespetu falta salatu nahi du. Doneztebe ko Osasun etxera Doneztebe eta Elgorriaga ko herritarrei arreta eskaintzen dien mediku euskaldun bat ordezkatzeko mediku erdalduna igorri dutela adierazi nahi du. Hau aski larria izanik, herritarrei aldaketa honen berri emateko erabilitako prozedura salagarria da ere, herritarrei helarazi zaien gutuna erdara hutsz baitago.

Gertaera honekin argi geratu da berri ere Osasunbideak euskaldunekiko duen jokabide maltzurra, herritarren hizkuntz eskubideei muzin eginez eta legeak ezartzen dituen betebeharrak sahiestuz.

Malerrekako Mankomunitatea. Euskara Batzordea.

Abril Olaetxea
sendiaren esker ona

Pena da Entzutegiko atarian pilatutako emozio guztia ezin pote batean sartu eta behar denean hartatik hartzea”, erran zidan lagun batek astearte iluntzean. Emozioa ez, baina bai eskerrona. Asteartean bizitakoa, eta aitzinetik jasotako animo eta elkartasun adierazpenak eskertzeko lerro anitz beharko lirakeke, banna bana ezin denak aipatu. Abril Olaetxea sendiak eskerrak eman nahi dizkiogu horiei guztiei, igandeko besta prestatzen ibili zinetenei, Kultur Batzordeko kideei, musikariei, bertsoari, antzerkilariei, dantzari, Udalarai, kazetari eta komunikabideei, alderdi politiko eta sindikatuei, asteartean Madrilera joan zinetenei, lekukoei, lagun eta norbanakoei, eta modu batean zein bertzean gure ondoan egon zareten guztiei. Esker anitz.

Jon Abril Olaetxea
(Abril Olaetxea sendiaren izenean)

I CHE
MALDAERREKA, S.L.

FUNERARIA
ZERBITZUAK
DONEZTEBE BEILATOKIA

Bortzirak eta Malerrekan
24 orduko zerbitzua beilatokian
eta etxean prezio guzietan

Trasladoak Iruñea, Donostia, Irungo
ospitaletatik edozein herrietara

☎ 948 637404
☎ 900 704704

BIZIKLETA TAILERRA
errepide, mendi, trekking
eta haurrendako bizikletak
Arropa eta osagarriak
Salmenta eta konponketa

Kanttonberri 1, bis • BERA
Fax - Tel: 948-631218

LABEYRAC
© 948631076 • BERA

BORTZIRI
UNSION ANAIAK
sukalderako haltzariak

ERAKUSKETA
Bereau etxea • LESAKA
Tel eta Faxa: 948 637 266

H. Lopez
iturgintza

- Kalefakzioa
- Gas Instalazioak
- Iturgintza industriala
- Ureztatze sistemak

Tel.: 948 45 21 26
Mug.: 617 34 99 44
NARBARTE

• PRENTSATIK BILDUTAKOAK •



Gara 02-06-10

«Hasieran, bideoa kendu zitzaidan arren, ez ninduten atxilotu, eta gero hedabideetatik jakin genuen gure aurkako akusazioak zein ziren. Hasieratik, beraz, prozesu guztia nahikoa arraroa eta lekuz kanpoko-edo izan da. Inoiz ez da jokatu behar zen bezala. Balorazio juridikoak egin beharrean, balorazio politikoak egin dira, batere frogarik gabe».

«Euskara eta herri mugimenduen kontrako zigorbidean sartzen da hau».

Jon ABRIL
Berako kazetaria
GARA 02-06-10

«Inolako frogarik gabe kokainazale, pastillero eta putazale naizela erran dute; min izugarria egin didate, niri eta nire familiari. Gogorra izan da gurasoak negarrez ikusi behar izana».

«Ez nengoen analisi horiek eginen zituen pilotari bakarria izateko prest. Hamabortz egunean zortzi analisi egin ditut eta guzietan negatiboa eman dut. Txema Urrutia medikuak negatiboa emanez gero dimitituko zuela erran zuen. Esperoan nago».

Mikel GOÑI
Ornozko pilotaria
GARA 02-06-06

• 11 GALDERA LABUR •



Patxiko REKARTE *Arizkungo alkatea*

Behiak kendu zenituen eta orain berriz jarri. Ez zara moldatzen base-rritik kanpo?

Moldatu bai. Kontua da lanean erabiltzen genituen produktu-toxikoeek alergia ematen zidatela.

Baserrian, herritik kanpo, bizitzearen abantailak?

Halere hurbil bizi gara, eta lasaiago.

Nola lortu duzu auzolanera hainbortze jende biltzea?

Aspaldixkotik ez zen gauza handirik egin Arizkunen eta jendea animatu da.

Iñauteak edo bestak?

Iñauteak.

Txopoa goratzen lagunduko duzu?

Normalki ez naiz joaten, baina beharbada bai

Zopak edo zikiroa?

Zikiroa.

Posada, tturri-xarra... zein da hurrengo proiektua?

Batzarlekua eta frontona konpontzea dira gure hurrengo asmoak.

Alkatetzan segitzeko gogorik bai?

Ez dakit, herri guztiak hartu behar duen erabakia da. Ikusiko da.

Herri arras txukuntzen ari zarete. Bazen beharrik edo?

Behar handia. Gan dire urte batzuk ez dela gauza handirik egin eta beharra bazen egiteko.

Afarietan kantuan aritzeko ohitura-rik baduzu?

Guti.

Iñauterietan blusoi beltza, bestetan...?

Ez da ohiturarik...

Irungo errep. - BERA - Tel. 948-631317

HARRI NATURALA

ATERATZEA eta LANTZEA

Antzinaldeak	Tximiniak
Angeluak	Erlaizak
Orma antzinak	Moldurak
Leiboak	Zokaloak
Ateak	Hilarriak
Arkuak	Marrazkiak
Pilareak	

'Abujandada' Mazzoa
Zohar antzekoa Txapeatua

ZINTARRIAK
ADOKINAK
ZOLAK

DROGUERIA MOLINERO

• DROGERIA • LURRINDEGIA • OPARIAK •

2.000 kolore baino gehiago lortzen ahal duen makina
10 minututan zuk nahi duzun kolorea
Profesionalentzat prezio berezia

SAROBE
okindegia

SANDERS Pentsuak
Eztegara 41, Tfnoa: 948 630 899 - BERA

EDARRIAK

MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa K / 82 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel.- Fax: 948. 63 10 27

HEZKUNTZA

Lanbide Heziketa euskaraz egiteko eskaera badela erran du Sortzen-ek

Nafarroako ikastetxeetan egindako inkestaren arabera

ttiipi-ttapa

Hainbat ziklotan Lanbide Heziketako ikasketak euskaraz ezartze-ko eskaera badela ondorioztatu du Sortzen erakundeak, Nafarroako ikastetxe publikoetan eta ikastoletan egindako inkesta baten bidez. Galdeketaaren arabera, LHko 6 ziklo eskaintze-ko adina eskaera bada, eta bertze 13tan ere eskatzen den ikasle kopurutik hurbil dago.

Inkesta batxilergoko bigarren mailako eta DBHko laugarren mailako D eredu-ko ikasle-aren artean egin zen ilbel-tzean, otsailean eta mar-txoan, LHn gehien eskatzen dituzten erdi mailako eta goi mailako zikloak zeintzuk diren atzemateko. Nafarroako Gobernuak LHko zikloak zabaltzeko 20 ikasleren eskaera behar dela erraten du. Sortzenek plazaraturiko datuen arabera, sei ikas-ketetan kopuru hori gain-ditu egin da: erdi maila-ko bi ziklotan -Natur in-



ARTXIBOKOA

Bertze 20 modulo euskaraz emateko eskaera badela uste du Sortzen-ek.

gurunean gorputza eta kirol jarduerak gida eta Mekanizazioan; eta goi mailako zikloko bertze lauretan: Administrazioa eta finantzak; Telekomunikazioa eta Informatika sistemak; Informatika aplikazioen garapena; eta Haur Hezikuntza. Egun, ziklo horietatik bi bakarrik eskaintzen dira euskaraz. Azpimarratzekoa da hogo-gei ikasle izatetik gertu

zeudela inkestan jaso diren bertze hamahiru ikasketak ziklotan.

Datu adierazgarriak dira baina ez osoak, Sortzenen ustez. Izan ere, irakasle batzuek inkesta ez dituzte pasatu eta bertze aunitzek ez dituzte jaso. Gainera, unibertsitateko edo batxilergo ikasketak aukeratzeko dituzten aunitzek gero Lanbide Heziketa hartzen omen dute.

Ildo berean, lan hori Nafarroako Gobernua-ri dagokiola salatu zuen Sortzenek. Horrenber-tzez, heldu den ikastur-tean aipatutako ziklo ho-riek euskaraz eskain-tzeko exijitu diote Hez-kuntza sailari.

Maiatzaren 22an bi-lera eskatu zuten Hez-kuntza arduradunekin gaia eztabaidatzeko, baina oraindik erantzun-aren zain daude.

LANA

Maiatzean 560 langabetu Doneztebeko INEMen

Maiatzean 560 lan-gunek emana zuten izena Doneztebeko INEMen, maiatzean baino 25 guttiago. Az-ken hiru hilabetetan 77 langabe guttiago dau-de eskualdean. Nafa-rroa osoan ere behei-ti egin du maiatzean langabeziak, 567 per-sona guttiago baitau-de lanik gabe, 16.409 guzira.

Langabetuen adi-nari dagokionez, es-kualdean 25 urtez be-heitiko 38 gizaseme eta 37 emakume eta 25 urtez goitiko 193 gi-zon eta 292 emakume zeuden langabezian maiatzean.

Sektoreka, zerbi-tzuetan 299 langabe-tu zeuden, industrian 168, eraikuntzan 38 eta nekazaritzan 10, aitzinetik lanik egin ga-beko 45 langabetue-kin batera.

Dena den, maia-tzean 212 kontratu be-rri bertzerik ez ziren egin (apirilean 409 egin ziren), eta horietatik 34 bakarrik mugagabeak (apirilean 100).

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

LESAKA:

- Asteleheneetik asteazkenera 9-13tara eta 15-19etara
- Ortzegun eta ortziraletan, 8etatik 15etara
- Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 6 • Tfnoa: 948 637050

BURLATA:

- ARTEKARI, S.L., © 948133328•133346. Faxa: 948133713
- Non: La Viña karrika, 4-behea • 31600 BURLATA

- Langile Autonomoak
- Nekazariak eta mendi-langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-kontratutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitorenak
- Elbarritasun eta jubilazio tramiteak
- Bideragarritasun planak



Zalain Auzoa
© 948631106
BERA

EGITIAKOKO MENUA ETA KARTA

Boda eta banketeak ematen dira

Lanchas

- Parketak - Tarimak
- Kutxillatzea eta bernizatzeak
- Estaldura orokorrak

Bera © 948630735 - 607 406781



BERA

Sei hilabeteko inhabilitazio zigorra ezarri diote Jon Abril kazetariari

Azkenean epaiketarik egin gabe akautu zen bi urte iraun duen auzia

Asier GOGORTZA

Ekainaren 11n Madrilen Jon Abril beratarren kontra egitekoa zen epaiketa bertan behera gelditu zen fiskalak bere akusazioa aldatu eta gero. Hasierako 6 urteko gartzela zigorra 6 hilabetera jautsi zuen akusazioak, eta Jon Abrirek kartzela zigorra saihesteko fiskalaren eskaria onartu egin zuen. «*Irtenbiderik hoberena delakoan onartu dugu, ez nere burua erruduntzat dudalako*» adierazi zuen Jon Abrirek.

Ekainaren 9an elkartasun egun jendetsua eta 11n bertan harrera beroa egin zitzaion Joni Altzateko plazan, Madriletik bueltan.



ARGAZKIA: FRAN AGARAK UTZIA

Maiatzaren 25ean plater tiraketa desafioa egin zuten tiro zelaian Bera eta Lesakako ehiztariek. Herri bakoitzetik hamarna tiralari aritu ziren eta azkenean beratarrek juxtu-juxtuan gailendu ziren, 416-405. Ondotik, afaria egin zuten elkarrekin soziedadean, lesakarren kontura noski! Argazkian, Berako taldea: Altzuguren, Iriarte, Gutierrez, Jauregi, Andueza, Zandio, Prieto, Agara, Torres eta Pikabea.

ERTZ JAIALDIA

Emanaldi interesgarriak bildu zituen bertze musiken jaialdiak

Musika eta bideo esperimentalez gozatze-ko hamaika aukera izan ziren joan den ekainaren 6tik 9ra Berako Kultur Etxean. Ertz kolektiboak antolatutako jaialdiak aurten ere ikusmin berezia sortu zuen Eus-

kal Herri guziko zale-tuen artean.

Begi bat Jon Abriren alde kanpainak ere arrakasta handia izan zuen, eta 150 begi baitoak antolatutako jaialdiak aurten ere ikusmin berezia sortu zuen Eus-



ie Iriarte-Echandi, s.l.

- Aholkularitza
- Artekaritza
- Aseguruak

Kanttonberri | BERA • Tel eta Faxe: 948 631 169

ALZURI

- Sukalde tresneria eta opariak
- Landare eta loreak

Tel.: 948 630 370 • BERA

FLASH

Antzerki emanaldiak

Ikasturteari akabera emateko euren lanak aurkeztuko dituzte hurrengo egunetan Emaitza eta Lamixine antzerki tailerretako kideek. Emaitzakoek ortziralean, hilaren 21a, egingen dute emanaldia, 20:00etan Kultur Etxean, eta Lamixinekoek ekainaren 30ean, 19:00etan.

Kirola eta osasuna

Berako kiroldegiak antolatutik, bi hitzaldi eskainiko dira datozen ekainaren 28an eta uztailearen 5ean, ortziralarekin, kirola eta osasuna mintzagai izanik. Hitzaldiak Kultur Etxean izanen dira, arratsaldeko 19:30etan.

Borrokan

Borrokan musika talde beratarrek bere lehenbiziko diskoa argitaratu berri du. Taldearen izen bera darama Ibai, Joseba, Mikel, Dabid eta Iñakiren diskoak. Eurek ekoiztua da, eta bertan hamar kantu aditzen ahal dira. Ostatueta salgai dago 10 euroren truke.

Literatur sariak

Nafarroako Gobernuko Hezkuntza eta Kultura Departamenduak urtero antolatzen duen euskarazko literatur lehiaketan sariak eskuratu dituzte Labiagako Mattane Rodriguez eta Leire Telletxeak eta Ricardo Barojako Laura Gonzalezek. Zorionak!

LESACA

Enplegu Zentru Berezia ireki du Aspacek Otsango industrialdean

Ekainaren 7an egin zen inaugurazio ofiziala

Aitor AROTZENA

Ekainaren 7an egin zen Otsango industrialdean Aspacek eta Bortzirietako Oinarriko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak, Nafarroako Gobernuaren laguntzaz ireki duten Enplegu Zentru Bereziaren inaugurazio ofiziala. Ekitaldian, Nuria Iturriagoitia, Nafarroako Gobernuko Industria eta Teknologia, Turismo eta Lan Departamenduko kontseilaria agertu zen. Berekin batera, Fernanda Esparza Aspaceko lehendakaria, Miguel Mari Irigoien Bortzirietako Oinarriko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko lehendakaria eta Jose Luis Etxegarai, Lesakako alkatea izan ziren aurkezpenean.

Enplegu Zentru Bereziak hamar langile eta bi arduradun ditu momentuz, eta Jope merkataritza etxerako elurretako kateak eta Delpi Packard etxeko piezak errebisatu eta aukeratu egiten ditu. Lantegi hau egiteko 258.435 euroko inbertsioa egin da, eta erdia Industria Departamenduaren menpe dagoen Nafarroako Enplegu Zerbitzuak paratu du. Lantegi



ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

Bertzeak bertze, elurretako kateak egiten dira Enplegu Zentru Berezian.

giko arduradunen ustez, epe laburrean hamar langiletik 18 edo 20 langile izatera pasatzen ahal da lantegia.

Lantegiak 425 metro koadro ditu. Horietatik 280 tailerrak hartzen ditu eta bertze 145ak bulegoak, jantokiak eta aldagelak hartzen dute. Maria Eugenia Campos arduradunak erran zigunez, langileendako jantoki eta garraio zerbitzuak eskaintzen ditu Aspacek. Erakunde honek Nafarroan zabaltzen duen hirugarren lantegia da Lesakakoa.

ADINEKOAK

Urrezko eta Diamantezko Ezteien besta ekainaren 27an izanen da

Nafarroako Kutxaren «Club Edad de oro»k urtero antolatzen duen festa ekainaren 27an ospatuko da aurten. Aurten, 50 urte ezkondurik bete dituzten bikoteak hiru dira: Domingo Igaribal Osés eta Evangelina Etxabide Irigoien; Jose Ordoki Estebereña eta Manuela Ubiria Alzuguren eta Juan Ra-

mon Ordoki Etxeberria eta Maria Rosa Arrieta Berra. Baina, Urrezko Ezteiak egiten dituztenekin batera, Diamantezko Ezteiak (60 urte ezkondurik) egiten dituzten bi bikote ere omenduko dira bestan: Justo Urkijo Bizkarguenaga eta Maria Luisa Txoperena Agara eta Eladio Alzugarai Arbu-

FLASH

Lesaka-Azkain Anaitasun Jardunaldiak

Sormen artistikoa eta emakumea izenbururekin Lesaka eta Azkainen arteko Anaitasun Jardunaldiak egingen dira ekainaren 28tik 30era. Ortziralean, 19:00etan Nafarroako emakume margolariekin solasaldia izanen da jubilatuek artean. Larunbatean, 13:30etan Lesaka eta Azkaingo alkateek, Anaitasun Protokolo Ofiziala sinatuko dute Udaltxean. Igandean, 11:30etatik 13:30etara Azkaingo Larrundarrak fanfarrea eta Martintxo txaranga kalejiran ibiliko dira. Larunbat eta igandean, 10:00etatik 13:30etara eta 16:00etatik 20:00etara Lesakako Eskulan elkarteak emakumeek egindako eskulanak eta Azkaingo Amicale des Peintres Amateurs elkarteak emakumeen koadroak ikusgai jubilatuen egoitzan.

rua eta Benita Martiarena Etxeberria.

Ekitaldiak eguerdian hasiko dira, txistulariek karriz karriz egingen duten ibiladiarekin. Agintari eta gonbidatuei ongietorria eskaini ondotik, Meza nagusia izanen da San Martin elizan. Gero, bazkaria eta omenaldia eskainiko da frontoian. Akautzeko, Europa taldearekin dantzaldia eta bi telebisten zozketa egingen da.

Deñe
LENTZERIA
MERTZERIA
Tfnoa.: 948 627 514
Beheko Plaza 8, LESAKA

BEKO
Lore eta landareak
Frain auzoa • LESAKA
© 948 637826

ANIA
Janari denak
Bittiria 41 • 948 637518 • LESAKA

XATURETXEA
Zahar
JATETXEA
Tfnoa: 948637027 LESAKA

IRU BIDE
ERRETEGINA
Tfnoa: 948 637 127
LESAKA

ETXALAR

Heldu den igandean egingen da Etxalarko III. Trikitixa txapelketa

Francisco Urrotzen gasna gailendu zen X. Gasna eta artisau ferian

Joseba eta Nerea

Hirugarren urtez segidan Lesaka Trikitixa elkarteak trikitixa txapelketa antolatu du gure herrian. Aurten berrikuntza modura haurrei zuzendua izanen da, 7tik 14 urte bitartekoentzat. Hauexek izanen dira Etxalarko plazako tranpaldoan ikusi eta aditu ahal izanen ditugunak: 12 bikoteak Euskal Herriko hainbat xokoetakoak izanen dira: Billa-bonakoak, Sunbillakoak, Lesakakoak, Donamariakoak, Azpeitiakoak, Zumarragoak, Beasaingoak eta noski baita Etxalarko eskolakoak ere. Igande honetan, ekainak 23, 18:00etan hasiko da txapelketa heplazan.

X. Gasna eta artisau Feria

Ekainaren 2an burutu zen X. Gasna Ferian aurkeztu ziren 14 gasnen artean, Francisco Urrotz urrotzarraren gasna irabazle suertatu zen epaimahiaren



ARTXIBOKOA

Inguruko trikitilari gazteenak ikusteko modua izanen igandeko txapelketan.

erabakiaren arabera. Bigarren postuan, Elbeteko Mertxe San Bizentzen gasna gelditu zen eta hirugarrena Pedro Telletxearen gasna. Baina hauek ez dira banatzen diren sari bakarrak, Etxalarko gasnak ere sarituak izaten dira. Aurten, Beheko Zubiko Juana Mari Arburuaren gasnak bigarren saria eskuratu zuen, eta behin baino gehiagotan sariren bat lortu duen Ba-

sateko bordako Isidro Ariztegik Etxalarko lehen saria lortu zuen.

Igerilekuen irekiera

Larunbat honetan, ekainak 22, irekiko dira herriko igerilekuak. Dagoeneko antzinatu genizuenetz Itziar Iriarte eta Nagore Ansalas izanen dira bigarren urtez segidan igerilekuetako arduradunak. Aurtengo sasoiko bonoen prezio-

ak hauek dira: 7tik 10 urtera bitarte 9,70 €. 11 urtetik 16 urte bitartekoentzat 16,10 €. 16 urte baino gehiagokoentzat 31,25 €. Eguneko prezioak berriaz hauek dira: 7tik 10 urtekoentzat 1,60 €. 11tik 16ra-koentzat 2,65 € eta 16 urtetik goitikoentzat 3,90 €. 7 urtetik beheitikoek ez dute ordaindu behar izanen. Ea eguraldiak behintzat laguntzen digun!

FLASH

Udaleku irekiak 2002

Aurtengo udan ere Ipurtargi Aisialdi Taldeak Etxalarko haurrei zuzendutako Udalekuak antolatu ditu. Iazko udako arrakasta ikusirik, bertze urte batez Joseba Olagarai eta Nerea Mitxelorena izanen dira udaleku hauek antzine-
ra aterako dituzten begiraleak eta hauek 5 aste-
teko plangintza prestatu dute. Heldu den astelehenean, ekainaren 24an, emanen zaie hasiera eta uztailaren 26an akabatuko dira, egunero goizetan 3 orduz lagunekin ongi pasatzeko aukera izanen dute herriko tikienek. Momentuz haur andanak eman du izena, baina oraindik Ipurtargi Aisialdi Taldearen ateak zabalik daude apuntatu nahi duten guzientzat.

Larraburukoak San Juan Xarrera

Larraburua jubilatuko elkarteak hainbat bazkide Igantziako San Juan Xarrera joatekoak dira heldu den ekainaren 24ean. 11:00etan aterako dira herriko plaza-
tik autobusez Igantzi aldera eta bertan meza aditu eta hankak uretan busti ondotik bazkaria izanen dute Arantzako jubilatuen elkartean jatetxean.

Javier Manterola

TEKNIKO
INSTALATZAILEA
iturgintza • gasa • kalefakzioa

Tfnua: 629 44 96 02 • BERA

© 948630052 • Zalain • BERA

OBRA PROIEKTUAK

- ✓ Etxe berriak eraikitzeko
- ✓ Zaharbarritzeko kanpotik eta barnetik
- ✓ Urbanizazio proiektuak
- ✓ Obra-zuzendaritza

Udalendako
aholkularitza-zerbitzua
hirigintza lanetan

BIDASOA
arkitektura bulegoa

Bittiria, 45 • © 948 637 503 • LESAKA

HERRIKO
JATETXEA

ANSONEA jatetxea
Eguneroko menua eta karta
Asteburu eta jai egunetan menu berezia
Foruen Plaza 1 • © 948 631155 • BERA

IGANTZI

Herria ezagutzuz

Joan den aste hondarrean hasi zen igerilekuko denboraldia

Biltoki elkarte itxia egonen da obregatik bolada batez

Oskar TXOPERENA

Joan den asteondarrean, ekainaren 15ean, zen irekitzeko piszinen aurtengo denboraldia. Aurkene Urra Garrok aurkeztu zuen proposamen bakarra bigarren enkantean eta berari eman zion Udaltzarak piszinen ardura. Berri hauek idazterakoan nahiko lan bazuten Herriko etxeko piszina uraz betetzeko, eskasia handia baita oraindik. Bitartean, bonoak salgai daude Herriko etxeko bulegoan, hilabete baterako edo uda guzira.

Biltoki Elkarte itxita

Otsailean egindako bilkuran onartu bezala, aretoak moldatzeko eta berogailua paratzeko lanak hasi zituzten aintzin horretan Biltoki Elkarteak, eta hori dela medio itxita egonen da bolada batez. Iaz sukalde guzia berri eta kanpora atera zen gas instalazio gehiena. Orain egin be-



ARGAZKIA. OSKAR TXOPERENA

Ekainaren 7an egindako Haurren Eguna -egun hartan gaztelu haizatueta ateratako argazkia da hau- eta ekainaren 14an Irunberri eta Xabierera egindako ikasturte akabilako ateraldiak uda giroan sartu gaituzte bete-betea. Egunotan hartuko dituzte oporrak eskolan eta, jakina, oporrekin batera etorriko zaie haur eta gurasoei eguneroko harat-honataz alde batera uzteko aukera. Pilota Eskolak, berriz, ekainaren 13an itxi zituen ateak eta Amabirgin ondoko astean hasiko dira berriz lanean, Herriko Txapelketa prestatzeko.

harreko lanekin ederki geldituko delakoan daude bazkideek. Aipatu gabeko utzia genuen aintzineko Juntak herriko, eta batez ere elkarteko kirolarien argazki bilduma paratu zuela aretoetako paretetan. Jendeak gustokoa izan

duen ekimena izan da hauxe.

Bidaia Tuniziara

Ekainaren 12an aterako ziren Tunizia aldera Parrokiak antolatutako bidaiarako izena eman zuten hogeita bi lagunak. Hasiera batean

Gaztela aldera joatekoak ziren, baina hogeita bortz lagun bertzerik apuntatu ez zenez azkenean Tuniziara egitea erabaki dute.

Txapela pilotan

Jokatzea zegoen oraindik Bortzirietako Banakako Txapelketaren finalerako bat, Imanol Goienetxeren lesioarengatik gibelaratutakoa, hain zuzen ere. Bada, ekainaren 1ean jokatu zen partida Lesakako pilotalekuan eta 18-10 irabazi zion Imanolek Lander Arriola lesakarrari. Ondorioz, txapelketan jokoan zeuden zazpi txapeletatik hiru etorri dira azkenean herriara. Doneztebeko Ezkurra Memorialan, berriz, ez dira gure pilotariak hain fin ibili. Urrutien Ibai Retegi eta Imanol bera iritsi dira, finalerdiak jokatzea aukera izan baitute, baina, Barberena eta Midegiaren aurka jokatuak partida ederrean 18-15 galdu egin zuten.



Besta Berri Eguna

Igantzian, urtetan izugarri motel egon ondok, Besta Berri Eguna berriz ere indartzen ari dela ematen du. Gaur egun bertze hainbertze bestaren antzeko garrantzia ematen bazaio ere, aitzineko mendeetan urteko erligio ospakizunik handiena izaten zen. Herrikoetxean dagoen XVII. mendeko dokumentoek, diruzainaren liburuek zehazkiago, urtero-urtero kanpotik ekarritako dantzari eta atabal joleei egindako ordainketak agertzen dituzte: «*da en datta haver pagado a los danzantes arcabuzeros en el dia del Corpus y su octava*». Bertze batzutan «*danzantes escopeteros*» deitzen diete. XIX. mendean Udaltzaren partehartzea gelditzen da agerian: «*acudir en Corporación a la procesión (...) se invite al Sr. Párroco y al Juez a la comida, como en años anteriores*». 1979an erabaki zuen Udaltzarako Corpus Eguneako meza Herriko etxeko ordezkarri gisera gehiago ez joatea. Ekainaren 2an ospatu da aurtengoa eta aldare ederrak ikusi ahal izan ditugu Goietxean eta Allinean.

bortzIRUDI
BERA
 FOTOKOPIAK, ENQUADERNAZIOAK, PLASTIFIKAZIOAK, FAXA, E-MAILA, SKANNERIA, ARRAZAKI MENTALAK, DESDISEÑO GRAFICOA, ENQUENTA LANA, SERIGRAFIA, TIRBOTULOAK, PUBLICITATEA
 Estogara 26 behea Tel.- Faxa: 948 63 15 21

BERRAZKUN
 Makinaria eraikuntza
 Moldaketak eta despiezea
 Mantenimendu mekanikoa
 Torno, fresadorak, errekifikadorak
 Igantziko Bentak • © 948 627572 • Faxa: 948 637508

zapatadenda.
kalotxa.
osagarriak.
konponketak.
 Legia 36 Bera 31780 Nafarroa 948 631516

PINTURAS LEGUIA S.L.
 Rafa: 600 819 640
 Jose: 666 235 466
 Eztegarra 26, 2.C - BERA

ARANTZA

Frontoiaren alde bat ixteko lanen urratsak aitzinera doazi

Herriko Etxeko teilatua ere abudo berrituko dute

Nerea ALTZURI

Oraindik bi urte sa-soi oso-osoak falta dira neguan sartzeko, baina neguko haize hotz eta indartsuetako egunetan ez dugu aurten «korrirre frexko» haundirik izanen frontoian. Pilotalekuaren gaineko alde bat ixten hasiko dira eta horrela frontoia dena estalia geldituko da. Neguan ez ezik, udan eta udazkenean euri erauntsien eraginez sortzen diren putzuek ez dute trabarik eginen laster. Herriko Etxeak zenbait enpresei frontoian falta den alde bat ixteko lana eskainita, hiru proposamen aurkeztu ziren herriko Etxera. Mastil Marco Construcciones S.L. enpresari adjudikatu edo esleitu dizkio frontoiko lanak. «Herriko frontoiko ekialdeko fatxada ixteko eta bertze lan batzuen obrak» deitzen lanak 48.920,90 euroko aurrekontua du.

Bien bitartean, Herriko Etxeko teilatua moldatzeko lanek Cons-



ARTXIBOKOA

Hau ez da aurtengo argazkia, baina kuadrila honetako aunitzek **oporraldia pasatu berri dute Tunisian**. Hilaren 10ean Loiuko aireportutik hegazkina hartu eta Tunisiara ailegatu ziren arratsalderako. Astelehenean, hilaren 17an, etxeratu ziren herritarrak. Xoko interesgarriak ezagutzeko aukera izan dute. Bidaia gidatu honetan, kilometroetako ibilaldiak, pasioak, nahiz hondartzara bisitak egin dituzte. Hamahiru herritar joan dira, hamar bortziriak eta Malerrekako batzuk izan dira bidai-taldean. Laugarren urtea da gisa honetako bidaia antolatuak egiten direla herritik. Martxa honetan, Munduko eskinak ederki ezagutuko dituzte. bejondeizuela! Ikusitakoa eta ikasitakoa inork ez dizuelako kenduko!

trucciones Erlaitzek eginen ditu. Beraz, teilatua konpontzeko lanetan ere laster hasiko dira.

Oihan probetxamendua

Apitta eta Argatsoro inguruetako 1.398 pinu-

en oihan probetxamendua Erkizia, S.L. enpresari eman dio Herriko Etxeak, 40.375 eurotan.

Hiru sari lortu dituzte eskolako ikasleek literatur lehiaketan

N.A.

Bertze urte batez sariak ekarri dituzte Arantzako eskolako ikasleek Nafarroako Gobernuako Hezkuntza eta Kultura Departamenduak antolatzen duen euskarazko literatur lehiaketatik. Ipuin lehiaketan, Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloen artean, lehenbizikoa saria Unai Iparragirre Oskozekeskuratu du «Artzaiaren ehun ardiak» ipuinarengatik. Dialektologia eta Etnologia lehiaketan, DBHko lehen zikloan bi sari ekarri dituzte. Bigarren saria Borja Iturria eta Aintzane Pikabek eskuratu dute, «Mendiko lanak eta herri kirolak» idatzia-ekin eta hirugarrena Imanol Mitxelena eta Joseba Madariagak, «Zer aldatu den baserrian lanarekin».

**ALBERGEA
JATETXEA**
© 948 634179
ARANTZA

J. RAMOS
Zolak akutxilatuta eta
barnizatzen ditut
© 948631342 BERA • © 948637172 LESAKA

TOLDOAK SALMENTA-KONPONKETA-ALOKAIURUA-ERROTULAZIOA
Eguzkitik babestekoak (elektriko edo eskuzkoak) • Toldo mugikorak • Igerilekuetako sareak • Kamioientzako toldoak • Estutzeko uhalak • Aluminio, PVC, Egurra eta Seguridadekoak • Motorizatuak pertsianak altxatu eta jausteko • Kontraleihoak • Estoreak • Eulien kontrakoak...
☎ 948 63 10 03
Fax: 948 63 10 03
Alkaiaga Ind. • Baldrun, 8 • LESAKA - BERA
PERTSIANAK
ERA GUZTIETAKOAK, MOTORIZATUAK, ESTOREAK

ZUBIETA

Olaseneko albergea irekiko dute uztailean

24 lagunendako tokia izanen du

Leire ORTUOSTE

Orain dela bi urte herriko plazan dugun Olasenea berritzen hasi eta heldu den hilabetetik aurrera bigarren mailako alberge bihurtuko da. 24 lagunendako tokia izanen du eta urte osoan irekia egonen da. Albergera etortzen denak zenbait aktibitate egiteko aukera izanen du: as-to gainean ibili, ingurua ezagutu... gidari baten laguntzaz.

Uztailaren 1ean zabaldu eta lehenbiziko bezeroak, IKAKo ikasleak, herrian izanen ditugu uztailearen 15a arte. Hemendik aurrera beste aukera bat gehiago badago herria ezagutu nahi dutenentzat.

Gran Hermano Zubietan

Ekainaren 10ean, arront ezaguna dugun «Gran Hermano» saio-ko Jazinto nafarra izan



ARGAZKIA: AINARA MINDEGIA

Bi urtez moldaketa lanetan aritu ondotik, uztailean irekiko dute Olasenea aterpe gisara.

genuen errotan. Bisitaldi honetan hartutako irudiak programaren proba baterako erabiliak izanen dira. Horretarako joareak paratu zituen pertsonai xelebre honek eta hemendik bi astera

T5-ko saioan ikusteko aukera izanen dugu.

Dardo txapelketa

Miranda de Eboko dardo txapelketan, emakumeen 7. postua eskuratu zuten (60 € saria).

EZKURRA

Apartamentua errentan eman da

Peio ZESTAU

Udaletxeak lehenbiziko solairuan dituen bi apartamentuetako bat errentan eman da. Udaletxean egin zen enkantea, eta Iruñekoa den Joaquín Villanueva bakarrik hurbildu zen bertara, eta berari eman zaió.

Errenta bi urtetakoa izanen da eta bost urte arte luza daiteke, bai maizterra eta bai Udala ados baleude. Errenta, hilean 90 eurokoa izanen da eta urtero bizitzaren igoera goratuko da.

Ezkontza garaia

Dudarik ez dago 2002. urtea ezkontz urtea dela. Maiatza eta ekainaren 8a arte lau ezkontza izan dira. Tornaineko Juan Carlos, Prekoneko Loli, Plazeneko Martzial eta udal idazkariak eman diote "baietza" beraien bikoteari. Ekainaren 22an (larunbatean) ezkonduko dira Ezkurra-ko beste bi lagun: Ibi-ko Pakita eta Albisoneko Juan Joxe. Momentuz inor ez da geldituko bizitzen herrian.

ITUREN

Ipuin eta marrazki lehiaketako sariak banatu dira

ibintzak antolatu du ekitaldia

Iban ISASI

Ibintza kultur taldeak Herriko eskoletako irakasleen laguntzaz lehenbiziko Ipuin eta Marrazki Lehiaketako sariak banatu zituen ekainaren 8an.

Maiatzean herriko eskolan ikasten duten neska-mutikoei 50 lan inguru aurkeztu zituz-

ten. Lau sailetan banatu zegoen lehiaketa eta hauek dira sarituak:

Haur hezkuntzan: Goizeder Mindegia Benito (marrazkia), 1 eta 2. mailak: Miren Sein Goñi (Marrazkia), 3. eta 4. mailetan: Aberri Untxalo Erregerena ("Jaxintoren abenturak Itunari" ipuina), eta 5. eta 6. mai-



ARGAZKIA: IBAN ISASI

Aberri Untxalo Erregerena, Goizeder Mindegia Benito, Maxi Gereka Amunarriz eta Miren Sein Goñi.

letan: Maxi Gereka Amunarriz ("Mendaur azpiko gizon misterio-

tsua"). Sariak banatu ondotik berendua izan zuten Herriko Etxean.

GAZTANDEGIA

Etxeko Ardi Gazta
 Petxenekoborda • Tfnoa: 948 450 862 • SUNBILLA

ZUBIONDO JATETXEA

 Alasta karrika
 BERA NAFARROA
 TLF 948 625 472
 sagardotegia jatetxea sagardotegia

APARAN, S. A.
 BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mogleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mogleak eta osagarriak
- KIT mogleak, esku-erremintak, etab...

Tel.: 948 456 080
 Faxa: 948 450 334
DONEZTEBE

DONEZTEBE

Euskararen Astea egin zuten San Miguel eskolan maiatzaren 20tik 24ra

Bestetako kartel lehiaketako sariak ere banatu ziren

tipi-ttapa

San Miguel Haur eta Lehen Hezkuntzako Ikastetxe Publikoak Euskararen Astea egin zuten maiatzaren 20tik 24ra. Goizero Xorroxin Irratian ikasleen saioak izan ziren eta ziklo guzietan beren saioa eskaintzeko aukera izan zuten. Baina irratiaz gain, bertzelako ekitaldirik prestatu zituzten eskolako ikasle eta irakasleek. Astelehen arratsaldean herri kirolak izan zituzten Kulki taldearekin. Astearte goizean krosa egin zuten era arratsaldean Malerrekako eskulangileak izan ziren eskolan, beraien lan egiteko modua erakusten. Ortzegunean, haur hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako lehen ziklokoentzat «Lagundu! Arraina naiz» pelikula ikusgai izan zen. Ortzirealean, berriz, Lehen Hezkuntzako bigarren eta hirugarren ziklokoentzat «Corin Cro-

rina» pelikula eskaini zen. Bien bitartean, haur Hezkuntzakoek jokuak egin zituzten.

Aste horretan egin dako ekitaldiez gain, eskolan aldizkari bat egin da, gela guzietako ikasleen partehartzearekin.

Bestetako kartel lehiaketa

Euskararen Astea baino lehenago, Doneztebeko Udalak herriko San Pedro bestak anuntziatzeko kartel lehiaketa antolatu zuen. Bertan, eskolako bigarren eta hirugarren zikloetan dauden ikasleek parte hartu zuten. Sarrituei opariak ematera bi udal ordezkari etorri ziren: Miguel San Miguel alkatea eta Mertxe Altzuri zinegotzia. Hain zuzen, Josu Migeltorenak eta Iñigo Zubeldiak egindako marrazkia erabiliko da aurten bestetako programaren azalean. Sarituak izan ez ziren karteletan erakus-



Goitiko argazkian, eskolako neska-mutikoak Euskararen Astean barnean Malerrekako eskulangileek erakutsi zuten lanekin. Beheitan, Doneztebeko udal ordezkariak bestetako kartel lehiaketako sariak banatzen.

keta ere egin zen eskolan.

Aurtengo San Pedro besten egitarauaren berri zabala, ale honekin

batera jasoko duzuen gehigarria berezian izanen duzue. Ohiko ekitaldiekin batera, San Pedro egunean, Donato

Larretxeak eta Floren Nazabalek desafia jokatuko dute 18:00etan, Urrezko Aizkoraren finaleko errebantxa.



SALAZONES UDANA, S. L.

*Inportaziozko lehen kalitateko bakailu gazitua
Bakailu gezatua eta kongelatua, erabiltzeko prest*

Alkaiaga ind. • Banarta, 8 - 23. pabillioia • LESAKA • Tel. 948 631536 • Fax: 948 631550

**Alberto
RETEGI**
abokatua

Altzate 17
BERA
© 948 630 763

SALDIAS

Sanjuan festak ekainaren 21etik 24ra

Larunbatean Nafarroa eta Gipuzkoako

Ostirala Ekainak 21

20:00etan ohiturako Baztan Zopak herriko ostatuan. **Gaez** dantzaldia LAIOTZ taldearekin.

Larunbata Ekainak 22

10:00etan mus txapelketa. **12:00etan** gazte mailako pilotarien arteko partiduak. **18:30etan** aizkora apostua, Nafarroa eta Gipuzkoaren artean: Mindegia eta Larretxea, Olasagasti eta Arrospideren kontra. **Arratsaldez eta gaez**

dantzaldia TRAKETS taldearekin.

Igandea Ekainak 23

12:00etan afizionatuen arteko pilota partiduak. **18:00etan** herri kirol saioa, Nafarroako Herri Kirol Federazioak antolatua. Iparraldeko Joku Torneoaren bigarren jardunaldia **20:00etan** San Juan suak. **Arratsaldez eta gaez** MODESTO akordeolaria.

Astelehena Ekainak 24

San Juan Eguna
11:00etan Meza Nagusia. **12:00etan** pilota partiduak, gazte eta afizonatu mailakoak. **14:00etan** herri bazkaria Mañukorta eta Manolo Arozena bertolariekin. **16:00etatik 20:00etara** hurrendako jokuak (gaztelu haizatuak...). **Arratsaldez eta gaez** dantzaldia MODESTO akordeolariarekin.

ARGAZKIA: PEDRO URRUTIAK UTZIA

Urte batzuk baditu argazki honek, baina aurten ere San Juan egunean dotore-dotore agertuko dira saldiastarrak eliz atarian.



BEINTZA-LABAIEN — SALDIAS — ERATSUN

Ikasturte bukaerako ateraldia Getariara eginen dute hiru eskoletako ikasleek

Heldu den ikasturtean ikasle guttiago izanen dituzte

Mikel ILLARREGI

Ikasturte honen bukaeran, ekainaren 20 eta 21ean hiru eskoletako ikasle eta irakasleak Getariako Askizu aterpetxera joanen dira egun hauek pasatzera. Kostaldeko herria izanik, ingurua (kostaldeko herriak, ohiturak, bizimoduak...) ezagutzeaz gain, arrantza teknikak eta itsasontzian ibilaldia izanen dira jarduerak nagusiak. Guztira

25 bat ikasle eta lau irakasle.

Heldu den ikasturtean, aurten asko ez baziren ere, gutxiago izanen dira edo txikiagoa izanen da ikasle kopurua. Beintza-Labaienen aurten 11, heldu den urtean 7. Saldiasen 5 dira eta 5ekin segituko dute. Eratsunen 11 aurten eta hurrengoan 10.

Ez dira gehiegi animatzeko kopuruak baina oraingo bederen au-

rrera egin beharra, noski.

Hezkuntzakoak badatoz

Zonaldeko ikuskariak esan duenez, ekainaren amaiera aldean, bera eta Trinidad Eslava Departamenduko arduraduna, hiru herri hauek etortzeko asmoa du, eskolak ezagutzea eta era berean zer nolako beharrak dauden ikusi eta beharrezkoa

den kasutan udaleko ki-deekin hitz egiteko hauek bideratzeko.

Pelikula

Saldiasko eskolako ikasleek, aurten bideo bat grabatu dute eta bertan ia ordu erdiko lana ikus daiteke. Alde bateatik "Haurren ihesa" filma, Bertold Brecht alemaniarren obraren egokitzapena. Ondoren eskulan ezberdinen imajinak. Eskolako istorioa



MIKEL ILLARREGI

«Haurren ihesa» hila-betetako lana ikusgai.

ere ikus daiteke hirugarren atal honetan. Eta azkenik, ETB-2k grabatutako bi minutuko erreportaia. Norbait interesatua balego deizala eskolara telefonoz eskaera utziz (948-615133). Prezioa; 12euro.

GOIZUETA



ARGAZKIA: ESTEBAN AROTZENA

Urtero bezala, hagitx arrakastatsua izan zen Aralar Musika Eskolakoek eskaini zuten kurtso bukaerako kontzertua.

Erantzun ederra eman zaie herrian Udalbiltzaren bi ekimenari

2.250 euro jaso dira Zuberoaren alde eta ehun EHNA tramitatu dira

Esteban AROTZENA

Azken hilabete hauetan Udalbiltzak antolatutako bi ekimen nagusiek, Zuberoa biziberritzeko diru bilketak eta Euskal Herriko Nortasun Agiriaren (EHNA) Tramitazioak, erantzun

ezin hobea jaso dute herrian. Lehenengorako 2.250 euro biltzea lortu da, propio horretarako antolatu zen barrikotea eta Gaztetxeak emandakoa izan direlarik diru-iturri nagusiak.

Euskal Nortasun Agi-

riak edo Karnetak berri, ia ehun tramitatu dira maiatzeko larunbatetan Udaletxean irekitzen zen bulegoan.

Dena den, antolatuzaileek ez dute oraindik itxiztat eman kanpaina hau.



ARGAZKIA: MARI JOSE

Sortzen-en pilota txapelketan Oihan eta Mikel Zugarramurdi lehengusuak irabazle izan ziren 9-10 urtekoen mailan, baita Julen Arozena eta Mikel Salaberria ere 8 urtekoetan. Hauek Aimar Zugarramurdi eta Xabier Apeztearen kontra jokatu zuten finala. Xumar Bakerok eta Aritz Salaberriak finalerdia galdu zuten txapelketa berean.



ARGAZKIA: ESTEBAN AROTZENA

Eskularen ikastaroari bukaera emateko urtean egindako lanen erakusketa burutu zen Herriko Etxeko kultur aretoan.

ARESO

Kultur Egunak egin ziren ekainaren lehen asteburuan

Mikel Aingeruaren bisita izan zen ekainaren 10ean

Juana Mari SAIZAR

Ekainaren lehenengo asteburuan Kultur Egunak egin ziren. Ostial arratsaldean mendira igo, Zubiriko etxolan afaldu eta goizalderako prest, gosalduek ondoan, Aresoko lau mugak egin zituzten. Larunbat eguerdian herri-rajetsi eta bazkaria izan

zen plazan mendizaleentzat. Dantzariak, herriko gazteen sokatira saioa, pelikula emanaldia eta dantzaldiarekin osatu zuten arratsaldea eta gauean afaria izan zuten.

Igandean, taloak, pilota partiduak eta herri bazkaria izan zen, bertsolarien saioarekin.

Txakurren txertoa

Txakurren derrigorrezko txertoa, lau urtetik egiten dena, ekainaren 8an egin zen plazan.

Mikel Aingerua

Mikel Aingeruaren bisita izan genuen ekainaren 10ean. Ohiko ongietorria egin zion herriko gurutzak eta me-



ARGAZKIA: UXUE GOIKOETXEA

Kultur Egunetako igandean pilota partidak jokatu ziren.

za ospatu ondoren, plazan zelai eta belatsoen bedeinkazioa egin zen.

Korpus Eguna

Ekainaren 2an Korpus eguna ospatu zen

ohiko prozesioarekin. Itxoinaldia Polaineneako aldarean egin zen. Gero, Otoitzaldia egin zen eta meza bukatutakoan hamaiketako udaletxean.

MUSIKA

Trikitixa txapelketak eta topaketa antolatu ditu Lesakako taldeak

Etxalar, Doneztebe eta Lesakan izanen dira hitzorduak



ttipi-ttapa

Ekainaren 23an egingen den Etxalarko III. Trikitixa txapelketarekin hasiko dira Lesakako trikitixa taldeak uda honetarako prestatu dituen ekitaldiak. Txapelketa hau 7 eta 14 urte bitartekoei zuzendua da eta hamalu bikotek hartuko du parte. Eskualdeari dagokionez, loar Oteiza-Maddi Uranga, Raquel eta Itsaso Fagoaga, Maider Etxandi-Esther Gurutxet, Itsaso fagoaga-Maider Etxandi eta Ahielene Urriza-Larraitz Gonzalez bikote lesakarrek, Maider Mendiondo-Maia Jauregi (Sara) eta Irune eta Itsaso Elizagoien etxalartarrek osatuko dute.

Uztailaren 1ean, berriro, Donezteben I. Trikitixa Topaketan ehun bat trikitilari bilduko dira, 17:00etatik aitzinera. Irats, Sunbilla, Billabona, Lesaka, Etxalar eta Donamariako trikitixa eskolek kalejira erraldoia eskainiko dute. Gero, eskola bakoitzak bere emanaldia eskainiko du tranpaldotik gainean.

Uztailaren 5ean, azkenik, Baztan-Malerreka-Bidasoako V. Trikitixa txapelketa jokatu da Lesakan. 16 urtetik goitiko zortzi bikotek hartuko du parte norgehiagoka honetan, horietatik gehienak gipuzkoarrak. Eskualdeko ordezkariak Nekane Etxandi eta Estitxu Elgorriaga lesakarrek eta Joseba Olagarai eta Nagore Ansalas etxalartarrek osatuko dute.



tuzun urr z t n
nts tz n uzu

t z

EUROPEAN... SC.MI...
st... h... m... l... zu... n... h...
uzun... K... n... r... n... e... n...
e... n... z... n... n... n... n... e... n...
n... n... l... n... z... n... n... n...
e... n... z... n... n... n... s... n... e... n...
e... n... z... n... n... l... n... z... n...
uzun... h... l... n... n... f... r... n... n... l...
K... n... z... n... n... z... n... n... t... n...
n... n... l... z... n... z... n... n... z... n...
s... z... l... s... n... n... l... s... n... l... s... n...



G... r... n... t... z... s... u... z... z... r...

LEITZA

Kiroldegi berriaren inaugurazioa egin zen ekainaren 1ean

Erakusketak eginen dira Maxurrenearen kultur erabilera bultzatzeko

Mikel ILLARREGI

Ekainaren 1eko eguerdian jende mordoa bildu zen kiroldegi berriaren inaugurazio ekitaldira. Bertan, udal honetako eta aurrekoaren kideak eta teknikoak, Nafarroako Gobernu Hezkuntza eta Kirol sailko ordezkariak diren Trinidad Eslava eta Trigo jaunak eta azkenik, txalo gehien jaso zituzten lehen eta oraingo kirolari ezagunenak.

Aurkezpenaren ondoren eta futbito partida jokatzeko bitartean instalakuntzak ikusi ahal izan ziren; kirol ezberdinetarako jokalekua, aldagelak, sauna, muskulaziorako gimnasia gela, squash, frontoi txikia eta aerobik gela. Beraz, nahiko aukera goputza eta burua sano mantentzeko. Buakaeran hamaiketako izan zen eta jende guztien ahotan, kiroldegia behin betikoz lortzeaz gain, ondoan dauden igerilekuak estaltzeko beharra aditzen zen.

Kultur-erabilera Maxurrenean (2)

Azkeneko alean, geroari begira Maxurrenearen inguruan sortu den iritzi ezberdinen aldeko bidea egin nahian, erakusketak martxan jartzeko asmoa zela ohartarazten genuen. Esan bezala, ekainaren 11n hasita, irailaren 1a arte, hamabostero erakusketaren bat izanen



MIKEL ILLARREGI

Kiroldegi berriaren inaugurazio ekitaldian, udal honetako eta aurrekoaren kideak eta teknikoak, Nafarroako Gobernu Hezkuntza eta Kirol Departamenduko ordezkariak eta kirolari ezagunak izan ziren, bertzeak bertze.

da ikusgai. Jende asko agertu da erakusketak haur eta haur txikien parte hartzeko prest baina oraingo udal garaia hau antolatuta nahi izan da eta udazkene-

rako beste saioaldi bat. Erakusketak astelehenean ez beste egunean zabalik egonen da, asteartetik larunbata bitartean 19:00etatik

20:00etara eta igandetan 12:00etatik 13:30etara.

Ekainak 11-23 Pangeako argazki handiak, "Luze", Aitziber Olanoren eskutik.

Ekainak 25-uztailak 7ra Mikel Lizarragaren harri, egur, buztin lanak... ikusgai

Uztailak 9-21 Okile tailearren eskulanak.

Uztailak 23-abuztuak 4 "Festa giroan" Aurreko materiala.

Abuztuak 19-Irailak 1 Koldo Fagoagaren Poupuri(marrazkiak...).



MIKEL ILLARREGI

Batasuna legez kanpo uzteko bidean Torrea enbargatu dute diru kontuak blokeatuz. Horregatik, "Torreari erasorik ez!! Demokrazia Euskal Herriarentzat" lelopean eta euriari ere aurre eginez manifestazioa burutu zen ekainaren 7an.

FLASH

Eskola Handira ikasle berriak

20 ikasle berrik eman dute izena ikasturte berriaren Erleta ikastetxean Haur Hezkuntzako bigarren zikloa (3-6 urte) burutzeko asmoz.

Guratz-mendi zena

Guratz-mendi elkarteak, izan dituen gora beherek eta galdutako epaiei aurre egiteko leku berri aukeratu du; lehen "Mendizabal ostalua" zena, alegia. Egun, 30en bat bazkide dira eta itxura denez, kopurua zabaltzeko asmoa dute. Bitartean lokal berria prestatzen ari dira.

San Juanak

Lehenbizi aipatu, aurreko alean esaten genuela Sanpedrotan ospatuko zela Euskal Herriko eskolen arteko bat-bateko bertso saioa eta bertan Mikel Azpiroz leitzarrak parte hartuko zuela baina zuzendu beharra dago, data aldatu baitute: San Joan bezperan izanen da Mungian. Bigarrenez, Barriola eta Belokiren arteko, "noizbaiteko" partidua. Gauzak zuzen hau ere, 23an jokatu da Donostiako Atano pilotalekuan eta esan beharrik ez dago leitzarren gogoia eta nahia zein den, beraz, eta beti bezala; Animo eta gogor txapela lortu arte! Hauek biak irabazi ala ez, seguru da San Joan bezperako plazako afaria, giroa eta sua espezialak izanen direla aurtan.

gaztelu scl
iturgintza
kalefakzioa saneamendua gasa
© 948 510086 / 510156 • fax: 948 610856 • LEITZA



BAZTAN

Bertze herrialdeak ezagutzeko Kultur Astea egin du Ikastolak

Irurita eta Elizondo arteko errepidea ez dute moldatuko

Rakel GOÑI

«Bertze kulturak ezagutzeko, bertze herrietara hurbildu» lemapean, maiatzaren 13tik 17ra Kultur Astea burutu zen Baztan Ikastolan. Aitzineko asteko ortzilerian, Arizkunenean, Udalak antolatutako «Nikaraguak merezi du» diaporamarekin eman zitzaion hasiera ekitaldiz betetako asteari. Ikastolako haurrek, Sahara, Namibia, Bostwana, Zimbawe, India (Rahastanetik Orissara) diapositiba eta solasaldien bitartez ezagutzeko aukera izan zuten. Modu berean, material informatikoa erabiliz, indigenekin jostatzen aritu ziren. Munduko herrialde ezberdinetako ipuinak irakurri zituzten eta eskulan tailerlean bertze kulturetako eskulanak egin zituzten. «Munduko herrien erakusketa» edeki zen, ikasle eta irakasleek ekarritako gauzeekin egin. Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoak ere ikastolan



izan ziren «Kintxo» lana aurkeztuz.

Astea akitzeko, Kintxo eskolarendako laguntza lortzeko asmoz, tonbola egin zen eta 624 euro atera ziren. Gurasoek ere solasaldiak, «Inmigrazioa Baztanen» mahai ingurua, tonbola, erakusketa... izan zituzten.

Aste arras mugitua, alaia eta arrakasta handikoa bizitu zuten maiatzan, beraz, Baztan ikastolan.



BAZTAN IKASTOLAK UTZIA

Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoek «Kintxo» lana aurkeztu zuten ikastolan. Bertze kulturetako eskulanak ikusteko modua ere izan zuten ikasleek.

PERTSONAIA

Iñigo BARBERENA

1,3 kiloko amoarraina arrantzatu du Elizondon

Elizondoko Iñigo Barberena Gortari, 10 urteko arrantzale gazte txoak 1,300 kiloko pisua eta metro erdiko luzera duen amoarrain eder hau arrantzatu zuen Elizondoko Jaime Urrutia parean ekainaren 1ean. Arraina erretatik ateratzeko orduan, laguntza pixka bat ere behar izan zuen eta Ander Loiarte lehengusua eskaini zion.

Erregai errekan

Elizondoko Txokoto auzoko bizilagunak arrenkura agertu zuten gan den astean, errekan erregaia agertu zelakoz. Errota zaharretako presa eta Antxitoneako zubiaren artean nabaritu zen gehien bat ixuria.

ANTXITONEA
Trinketea

Jatetxea - Ostatua
Hotela - Trinketea

Menu Bereziak

Braulio Iriarte
ELIZONDO

© 948 581807 • 948 581853

ARROPA DENDA

Gazteendako era guzietako arropa

Lanerako arropa

Gierreserena

OSTATU - JATETXEA

Jaki Tipikoak • Etxeko Giroa

Iturriotz Auzoa • © 592043 • ORONOZ-MUGAIRI

ONASKA

ERRETEGIA

Euskal sukaldaritza

Arrain eta haragia brasan

Bagordiko bidean • ELBETE

© 948 45 20 88

BAZTAN

Arizkungo Sanjuanak ekainaren 21etik 24ra



Ortzileria 21
12:00etan besten hasmenta izateko dianak eta txupinazoak. Larrain karrikako marka haustea. Gazteen luntxa. **13:00etan** Txopo eta goratzea. **14:00etan** Bazkarie txopo goratzaileendako. **17:00etan** herri kirol desafioa. **20:00etatik 22:00etara** dantzaldia JALISKO BAND taldearekin. **22:00etan** Baztan-zopak. **00:00etatik aitzin** dantzaldie JALISKO BANDekin. **5:00etan** Zingar jatea.

Launbeta 22
Haurren Egune
10:00etan Argi soinuak. **11:00etan** Haurren jokoak. Gaztelu puzgarriek eta karts. Herriko dantzari ttikien saioa. **14:00etan** Haurren bazkarie. **17:00etan** antzara jokoa. **18:00etan** paxaka Iruritako jokalariekin. **20:00etan** Kantaldia: Niko Etxart bere aitarekin. **22:00etan** gaita. mutildantza eta zortzikoa. **00:00etan** Dantzaldie Jalisko Bandekin. **5:00etan** azken zirriildendako ziztor jatea.

Igendia 23
San Juan bezpera
10:00etan Argi soinuak. **11:00etan** Meza Nagusia. Arizkungo lehenbiziko poni erakusketa eta txapelketa. **16:00etan** plater tiraketa. **17:00etan** dantzariak. **20:00-22:00** IÑAZKI taldea. **21:00etan** San Juan

suak eta ezkil jotzea. **22:00etan** Sorgin dantza eta antzerkia. **22:30etan** gaita, mutildantza eta zortzikoa. **00:00etan** IÑAZKI. **5:00etan** Gasna jatea.

Astelehena 24
San Juan Egune
10:00etan Argi soinuak.

11:00etan Meza Nagusia. **12:00etan** Mutildantzak. Hameketakoa herrikoendako. **14:00etan** Zikiro jatea txarangarekin. **17:00etan** mozkor jokoak. **22:00etan** Mutildantzak. Gaita eta zortzikoa. **00:00etan** Dantzaldia. **3:00etan** sasoian direnendako, Txopo botatzea eta Gaizoa ni.



SOULE

Hileta artea

Tel: 948 453444 • 629 659583
ARIZKUN



BAZTANDARRA KOOPERATIBA
Baserritarren zerbitzurat
 © 948 453310 - 948 453375 • Faxe: 948 456201
 Ordoki Auzoa • **ARIZKUN**

BERRO-BIDE
 Traktore eta nekazal tresneriaren konponketa eta salmenta
 © 948 453425
ARIZKUN

S.A.T AMAIUR
GASNATEGIA
 Ordoki Auzoa,
 Tfnoa: 948 45 32 50
ARIZKUN

ORDOKI LIKOREAK
ERRETEGIA
 Tel.: 948453410
 Fax: 948453378
ARIZKUN
 Parrilan egindako haragi eta arrainak

DOLATXEA
OSTATUA
 Bestak ongi pasa!
 © 948 453002 • **ARIZKUN**

ARIZKUN
zerrategia
 ➤ Zerrategia
 ➤ Zurezko teilatuak
 © 948 453 304
 Dantxarinearako errep.
ARIZKUN

BAZTAN

Erratzuko Sanpedroak ekainaren 27tik 30era

Hondar egunean bertso-poteoa izanen da Bizkargain fanfarrearekin



Aurten ere besten hondar egunean herrikoen arteko gymkana apostu bikainak izanen dira.

Ortzeguna 27
Haurren Eguna
11:00etan karts eta jokatuak herriko frontoian.
12:00etan altxaferoak eta ezkil-jotzea.
12:30etan japoniar bonbak.
15:00etan kartsak.
20:00etan Eriz magoa.
21:00etan baztan-zopak Albantzena ostantuan.
22:30etan WICHITA taldea Zubipuntan.
00:00etan dantzal-

dia FRANXIXKOrekin.
Ortzileria 28
Zikiro Eguna
10:00etan Argi soinuak.
11:00etan pilota partiduak Gorostapolon.
14:00etan zikiro jatea frontonean. Bazkal ondoan magraren zozketa, BIZKARGAIN fanfarea eta kantu zaharrak KETXU taldearekin.
20:00etan dantzaldia KETXU taldearekin.
22:30etan mutildantzak.

00:00etan dantzaldia KETXU taldearekin.

Larunbata 29

San Pedro Eguna
10:00etan Argi soinuak.
11:00etan Meza Saindua, Baztango Udala-

rekin. **12:30etan** luntxa Ostantuan. **17:30etan** pilota partidak. **20:30etan** kantaldia Iparraldeko kantariekin. Tartean antzerkia. **22:30etan** mutildantzak. **23:00etan** su artifizialak. **00:00etan** gaupasa GAUBELA tal-

dearekin.

Igandea 30
Hondar Eguna
10:00etan argi soinuak.
12:00etan Meza Saindua. Ondoren, eliza barronean kantaldia GAZTELU taldearekin.
17:00etan herrikoen arteko gymkana apostu bikainak. **19:00etan** bertso-poteoa BIZKARGAIN fanfarrearekin.
20:00etan dantzaldia TRIKIDANTZ taldearekin.
22:00etan mutildantzak. **22:30etan** kantaldia Iparla ostantuan Panpi Portugalekin.
00:00etan dantzaldia TRIKIDANTZ taldearekin. Akabailan, Gaixoa

Albantzena
OSTATU-DENDA
Santi Dendarjeta
Albantzena Etxea, ERRATZU. Tfnoa:948 45 31 12

Barberena Tailerrak

- Marka guzietako autoen konponketa
- Bigarren eskuko kotxeen salmenta

Tel: 948 45 31 20 • ERRATZU

ETXEBERRIA OSTATUA
Ongi pasa herriko bestak!
© 948 453013
Karrika Nagusia 12 • ARIZKUN

Ostatua
Herriko Plaza • © 948 453118 • ERRATZU

ZUBIPUNTA OSTATUA
Besta onak opa dizkizuegu
© 948 453248
ERRATZU

Uxoá
Okindegian
• Ogi artisaua, egunekoa eta txapata
Jatetxean
• Menua eta karta (asteburuetan)
• Espezialitate parrilan erretako jakietan

Enkargatuz gero, bildotsa ogi-labean erre. Goxo-goxoa!

IPARLA OSTATUA

- Egunero bokata eta pintxo beroak
- Igandetan salda
- Giro ona

Aduana karrika
☎ 948 453153
ERRATZU

SARA

Lehendakari berria izanen du Besta Komiteak

Frederik Barrenetxek hartu du Martin Goienetxek 25 urtez egin duen lana

Aña Mari eta Fred

Erearoaren 7an, herriko besta komiteak bere biltzar nagusia egin du. Frederik Barrenetxe hautatua izan da lehendakari berri bezala. Alabainan, 25 urtez suharki lan egin ondoren Martin Goienetxek bere kargua gazte bati uztea deliberatu du. ehendakari ordezkoa Zozu Zunda izendatua izan da; sosketariak Mirentxu Azkarraga, Maialen Saint Martin eta Bernadette Zunda. Idazkari lanean Odile Ayez eta Sophie Garbiso arituko dira. Bertze 12 gaztek bulegoan parte hartuko dute; Sophie Barneix, Marie Jo Berruet, Panpi Elizalde, Joxet eta Daniel Endara, Xan eta Mixel Etxeberri, Rafael Goienetxe, Xan Harriague, Jakes Iriarte, Maritxu Jauregi eta Pantxiko Lastra.

Joan den urteko bes- ten bilana ere egin zen, 13.000 liberen galtzea izan da. Hunen zergaitia, batetik denbora hotza eta bertzetik afitxa berria argitaratzea.

Hilabete hondarrean, gazte andana hau bes- ten programa finkatzeko bildu beharra da. Zorionak, beraz, talde berriari.

Ezinduendako zerbitzua

Aitzineko TTIPI-TTAPA batean aipatu genuen Herriko Etxeak zerbitzu berri bat eskaintzeko as-



Martin Goienetxek 25 urtez suharki bete du Besta Komiteko lehendakari lana. Orain Frederik Barrenetxe gazteak hartu du lekukoa.



ARTXIBOKOAK

motan zela etxetik ateratzeko arazoak zituzten pertsonentzat. Zerbitzu horren berezitasuna da ekainaren 10etik goiti, pertsona horiei apairuak etxeratermaten zaizkiela. Jean-Pierre Lemoine ardurtzen da erretira-etxeko langileek prestatu apairu horien banaketaz.

Oraingoan, hiru presunek badute zerbitzu hortaz baliatzeko parada eta 6 euro ordaintzen dituzte apairu bakotz. Bikoteen kasuan aldiz, lehenak 6 euro ordaintzen baditu ere, bigarrenak 5,5 euro bazik ez ditu pagatzen. Zerbitzu hori mugatua da, baina interesatuak direnek xehetasunak Herriko Etxean galdegin ditzakete.

Dirulaguntza Ereintabil elkarteari

Herriko kontseiluak Ereintabil elkarteari 150 euroko dirulaguntza ematea deliberatu du,

Donibane Lohizuneko ikastolaren aldeko kontzertu bat antolatu baitu gan den ekainaren 14an. Kontutan hartu behar da badirela Donibaneko ikastolan ibiltzen diren haur saratarrak.

Ikasturte hondarreko bestak

Hilabete huren 22an eta 29an, San Josepe eskolak eta eskola publikoak beren ikasturte hondarreko bestak ospatuko dituzte herriko polikiroldegian. Hitzorduak, arratseko 8etan dira eta bi ospakizunetan haurren emanaldia eskainia izanen da. Ondotik afaria, musikaz alaitua.

Azkaineko koralak elizan erearoaren 26an

Erearoaren 26an, asteazkenarekin, arratseko 9etan, Azkaineko Larrun kanta koralak emanaldia eskainikodu.

Lan eskaintza

Herriko Argin enpresak argin apendiz batzuzten du, apendizgoan hiru aste lanean aritzen da nagusiarekin eta bertze bi eskolan. Interesatuak direnak deiztatela 0559542777 zenbakirat.

Euskal herriko Naziotasun Aitormena ekainaren 22an Gazteen Etxean

Ekainaren 22an, Euskal Herriko Naziotasun Aitormena esku- ratzen ahalko da Gazteen Etxean, 10:30etatik 13:00ak arte. Eskera horren egiteeko beharrezkoak dira kar- neta neurriko hiru argazki, helbidearen egiazta- giria eta 12 euroko tx- kea.

Legebiltzarreko hauteskundetan eskuina nagusi

Joan den ekainaren 9an, Frantziako legebiltzarreko hautes- kundeen lehen itzulia iragan da. Saran ezus- teko handirik ez da gertatu, kantonamen- du eta ipar Euskal Herri guzian bezala, Michèle Alliot-Marie eskuindarra atera bai- ta irabazle (467 botu). Bigarren postuan Panpi Dirassar-en Abertzaleen Batasuna ko- katzen da (129 botu), ondotik alderdi sozia- lista heldu delarik (123). Bertzalde, par- te hartzea eskasa izan da hemen ere, boz- katzen ahal duten 1697etarik bakarrik 968k eman baidute botua. Gainera, ho- rietan baliogabeko 46 boz izan dira. Gogo- ratu Batasuna ezker abertzaleko alderdiak "demokrazia" deitu pa- per berdea ematera deitu zuela.



MARTIKO

Abatekietan

adituak eta arituak

© 948 625016 • Fax 948 625036
Alkaiaga Industrialdea • BERA

AZKAIN

Hamazapi elkartek parte hartuko dute ekainaren 23ko bestan

Egitaraua joan den urtekoa baino aberatsagoa izanen da

haintza, Angela eta Eneko

Pilotariak, txirrindulariak, gazteak, zaharrek, musikariak, zaharrek, eskoletako eta ikastolako burasoa, gau eskolakoak, besta komitekoak ... denetarik izanen da. Aurten arlo guzietako 17 elkarte aritu dira eskuz esku bestaren antolatzen.

Elkarteen besta bigarren aldikotz eginen da heldu den igandean. Iragan urtean, 1901.eko legearen mendeurrena zela eta, toki aintzetan bezala, herriko elkartek besta egun bat antolatu zuten. Egunak arrakasta izan zuten eta gertakari horri segida eman behar zitzaioela erabaki zuten. Helburuak: adin guzietako eta mundu desberdinetako jendea bildu urtean behin, Azkaingo elkarteen lana hobekiago ezagutu, elkarrizketa sortu, eta zergatik ez projektu berriak azaldu?

Antolatzaileak: Aitxalili, Azkain Bollendorf Anaitasun elkartea, Azkaingarrak bat, Kornelio, APE, APPEL, Elgarrerekin, Gemuku, Ikasleak, Ikastola, Mendixka VTT, Orduan, Adin Goxoa, Azkaingo Gau Eskola, Azkaingo besta ko-



ARGAZKIAK: ENEKO JORAJURIA
Everest kaskotik pentsamendu berezi bat izan zuela Shisha Pangma espedizioko laguntzat erran zuten Fredericek.

mitea eta Ideki. Egitaraua iaz baino aberatsagoa izanen da:

10:30etan meza.
11:30etan hitzordua Ur Hertsiko erromano zubian: txalapartariak eta



Kornelio musika eskolako ikaslea, bazkaria, herri jokoak (haur eta

helduentzat) 18:00etan Plazan: Pilota partida, mutxikoak, poteo eta herriko dantzariak. 22:00etan: Jondoni eguneko sua.

Frederic Lafitte mendizaleari bi ongietorri

Argazkia Tokiko irratia, kazeta eta telebista guzietan agertu dira herriko alpinistaren balentriak. Maiatzaren 17an Everest gailurra gainditu ondoren, Ekainaren lehenean egin zioten ongi etorria lehen aldikotz Baionako geltokian.

Ondoko asteartean eskoletako haurrek eta Herriko Etxeak sorpresa egin zioten: Bil-Tokin errezebitu zuten. Herriko Etxeak plata zizelkatu bateskaini zion. Haurrek eskulanetan prestatu zuten Everestren maketa haundi bat, espedizioko akanpamendu guziekin. Ondoa, 10 aldiz tikiagoko Larrun kaskoa ere eraiki zuten, alpinistaren performantzia zertaraino haundia zen erakusteko. Ondotik galdera aintz izan ziren eta baxotxari erantzuteko astia hartu zuten Fredericek.

Bigarren ongi etorria

FLASH

Herriko Kontseiluko erabakiak

Eusko ikaskuntzaren hiztarmena bozkatua izan da Euskara ofizialki erabilia izan dadin bizi publikoan. Hala nola ezkontza, heriotza, eta sortze agiriak Euskaraz egiten ahalko dira nahiko dutenentzat. Seinalatzapena ere bi hizkuntzetan egiten ahalko da. Bertzalde Kulturarendako gazte enplegu baten sortzeko erabakia hartua izan da. Herrian OGM kulturarik ez onhartzea deliberratu dute ere. Hiru erabaki hauentzat kontseilu osak aho batez bozkatu du.

Mendi ibilaldia

Orduan elkarteak mendi ibilaldi bat antolatu du Araban, Aratz izeneko mendian (1443 m). Uztailaren 6an larunbatarekin eginen da ateraldia, eta Aratzen urtebetetzea ospatu nahiko duten guzietan idekia izanen da (23 urte).

Elkarretaratzeak

Presoen hurbilketaren aldeko elkarretaratzea ekainaren 28an eginen da ortziralearekin, 19:00etan plazan.

lehenago Shisha Pangma 99 espediziokideek antolatu zuten, Fernand eta David Grazik arteak. Aroa ez bazuten beren alde ere 80 bat pertsona bildu zen herriko kioska tikiaren barnean edo parasolen azpian. Trikitixa, aurrekua, txalaparta, lagunak diskurtoak, Panpi Laduxen kantu bat, eta Auzapezaren hitza: merezi zuten bezalako zeremonia eskainia izan zitzaien Azkaingo heroi berriari.

HERRIKO ETXEKO EDANTEGIA
CAFÉ DE LA MAIRIE
MAIXAN ETA VÉRONIQUE
SARA • TEL 0559542519

ARMUA Jatetxea
Zugarramurdiko karretera 3. Km
© 948 599 131 - URDAZUBI

Eskisaroi jatetxea
Jaime Urrutia, ☎ 948 580 013
ELIZONDO

BURKAITZEA
ostatu erretegia
Zugarramurdiko bidea, 3 km.
© 948 599280 • URDAZUBI

SENPERE



Alaitz eta Maider, Oskorri eta Niko Etxart-ek herriko bestak alaituko dituzte aurten

Alliot-Marie eskuindarrak irabazi zituen legegile bozak

Franck DOLOSOR

Herriko besten komiteak programa aberatsa prestatu du aurten, Txalaparta, Niko Etxart, Aistrika, Tabasco, Aiki, Oskorri eta Alaitz eta Maider musikariak entzuten ahalko baitira. Arratsalderoko pilota partidaz gain, indarjokoen erakustaldiak egingen dituzte igandean Goikoetxea harri-altzatzaileak prestatuak.

Artzain xakurrak maitate dituztenek egun ezin hobea izanen dute uztailearen 2an asteartearekin. Usaian bezala, astelehen arratsaldeko 7 orenetan mutxikoak dantzatzeko parada izanen da.

Bertzalde, ortziraleko zikiroaren ondotik bakalaua, atuna biperrekin, paella eta angirak jastaketak egingen dira

larunbata eta asteartea artean.

Hauteskundek

Michèle Alliot-Mariek irabazi zituen legegile hauteskundek gure hautes-barrutian nahiz eta bigarren itzuli bat beharrezkoa izan zen Defentsa ministroak ez baitzuen gehiengo osorik ardietsi lehen itzulian. Herrian, MAMek 970

boz izan zituen, alderdi sozialistak 367, hirugarren indarra Abertzaleen Batasuna delarik 213 bozekin.

Orain ikusi beharko da Alliot-Marie-k Raffarin-en gobernuan lanean segituko duen ala ez. Bere ministeritza atxikiko balu Daniel Poulou Urruñako auzapeza litzateke Lapurdi hegoaldeko diputatua.



ARGAZKIA: STUDIO DE LA NIVELLE

Lehen jaun hartzea iragan zen maiatzaren 26an. Aurtengo kermeza biziki untsa iragan zen erearoren 9an. Bazkariaren ondotik eskola girixtinoko haurrak dantzan aritu ziren. Garat, Zamora, Susperreguy eta Astigarraga andereak zoriondu dituzte herriko etxean amen bestaren karietarat.



ZOANSA

SEAT AUDI VW SALMENTA
MARKA GUZIEN KONPONKETA

Tel.: 948 62 55 55 • Faxa: 948 62 55 05

Banarta, 2 • Alkaiaga ind. • 31789 LESAKA
(Sarrera Beratik)



**RESTAURANT
MIGUEL**

Ongi zaindutako sukaldaritza
Menuak aukeran

MIGUEL JATETXEA
Ibardingo Lepoa
☎ 948 631209



EZKONTZAK

Pedro Maria Mikeo Zugarramurdi eta **Izaskun Sansiñena Olaetxea**, Iturengoak, maiatzaren 28an.

Iñaki Anzizar Telletxea eta **Maidar Arriurieta Perurena**, Sunbilla eta Leitzakoa, ekainaren 1ean.

Pedro Maria Mikeo Zugarramurdi eta **Izaskun Sansiñena Olaetxea**, Iturengoak, maiatzaren 25ean.

Joao Carlos Cardoso de Raposo Pereira eta **M^a Carmen Gallardo Iturriza**, Portugal eta Kubakoa, NARBARTEN, ekainaren 3an.

Louis Pascal Etxeberria eta **Marie Agnès Iribarren**, Azkaingoak, maiatzaren 25ean.

Ramuntxo Marin eta **Patricia Jolimon de Haraneder**, Azkaingoak, maiatzaren 25ean.

Juan Carlos Mariezkurrena Apeztegia eta **Maria Isabel Telletxea Eratsun**, Ezkurra eta Beintza-Labaiengoa, maiatzaren 18an.

Idoia Etxeberria Makirriain eta **Gotzon Mirena Arenas Salazar**, Arantza eta Algortakoa, maiatzaren 25ean.

Joseba Patxi Xabier Sarasola Salegi eta **Maite Zelaieta Oskoz**, Itsasondo eta Igantzkakoa, ekainaren 1ean.



SORTZEAK

Mikel Martinez-Barranco Duce, Leitzaakoa, maiatzaren 29an.

Helena Aranburu Fernandez, Leitzaakoa, maiatzaren 31n.

Izaro Aldabe Telletxea, Doneztebekoa, maiatzaren 27an.

Haritz Nuñez Goñi, Elizondakoa, maiatzaren 29an.

Andoni Azkarraga Mendiburu, Elbetekoa, ekainaren 2an.

Soliane Estekorena, Azkaingoa, maiatzaren 2an.

Lucas Luberriaga, Azkaingoa, maiatzaren 19an.

Jaione Mazizor Mitxelena, Arantzakoa, apirilaren 16an.

Andoni Mazizor Mitxelena, Arantzakoa, apirilaren 16an.

Mikel Goizueta Taberna, Arantzakoa, apirilaren 21ean.

Ekaitz Lukanbio Lucas, Arantzakoa, ekainaren 2an.

Maiena Goienetxe, Sarakoa, maiatzaren 14an.



HERIOTZAK

Eugenio San Miguel Juanikorena, Doneztebekoa, maiatzaren 28an, 80 urte.

Mari Paz Irisarri Iturbide, Etxalarkoa, maiatzaren 30ean, 88 urte.

Saturnino Parra Miravalles, Lesakakoa, maiatzaren 31n, 89 urte.

Maria Luisa Mariñelarena Legazkue, Doneztebekoa, ekainaren 3an, 78 urte.

Jose Mari Lasaga Lasaga, Lesakakoa, ekainaren 3an, 66 urte.

Teodora Lizardi Altamira, Berakoa, ekainaren 8an, 79 urte.

Juana Etxabide Arburua, Iurretakoa, maiatzaren 31n, 88 urte.

André Jean ierre Lallement, Azkaingoa, maiatzaren 1ean.

Maria Ignacia Altamira Salaberri, Azkaingoa, maiatzaren 9an.

Eskela eta eskertzak ttipi-ttapan 948 631188

Eskela jartzeko (nahi izanez gero argazkiarekin) 63,10 € ordaindu behar da **Rural Kutxako** 3008 0080 53 0703304626 kontuan sartu eta justifikantea ttipi-ttapan igorri faxez edo postaz, argazkiarekin eta sartu nahi den testuarekin batera.



Maria Luisa MARIÑELARENA LEGAZKUE

*Lehenago zinen etxeko motorra,
Ederra zen zure irri kutsakora;
Beti izan zarenez oso emankorra,
Zutaz oroitzea izanen da gure altxorra.*

Une latz hauetan gurekin izan zareten guziei eta elizkizunera joaten saiatu zinetenei, mila esker.

FAMILIA.

Donezteben, 2002ko ekainaren 3an.



TANATORIO BAZTANDARRA

Santiago 52 • ELIZONDO

Baztan, Bertizarana,
Urdazubi eta Zugarramurdin
24 orduko zerbitzua tanatorioan
eta etxean prezio guzietan

☎ 948 581959

☎ 900 704704

DATUAK...

- Maiatzaren 17an Everest (8848m) gailurra gainditu du Errobert Larrandabururekin. Sagarmatha espedizioarekin joana zen. 30 urte ospatuko ditu Ekainaren 25an.
- Espedizio hau egin aintzin bertze mendi ezagun batzuek zituen: Tubkal (4165) Marokon, Aconcagua (6960m) Argentinan, Huayna Potosi (6088 m) Potosi Bolibian, edo Shisha Pangma (8046m) Himalaian David eta Fernand Grazi Azkaindarrekin. Bigarren aldia da 8000 metrako gailur bat saiatzeko duela. Baina Shishan 7500 metratan gelditu ziren, sobera elur bazelako.



ENEKO JORAJURIA

Frédéric LAFITTE *Azkaingo alpinista*

«Everest-eko gailurra baino zailagoa izan da biharamoneko jaustea»

Eneko JORAJURIA

Frederic Lafittek ez du diskurtso handirik egiten eta erantzun xumeak egiten ditu. Bi hilabetez bizi izan dituenak bertze mundu batekoak dirrela senditzen du eta ez ditu edozoinek ulertzen ahal. Aitortzen du Shisha Pangman baino zailtasun gehiago bizitu dituela. «6400 metrotan iragan dugu hilabete bat baino gehiago eta hori ez da errega izan. -20°-ko tenperaturak jasan behar dira egunero eta horrek asko higatzen du».

Lehen aldikotz 8000 metro baino gorago igan da eta han ikusi eta sentitu dituenak ez ditu erreki kondatzen ahal, hitzik ez baita hortarako. «Mendi aintz ingan nituen Everestera joan aintzin bainan altura hortan sentitu dut zinez gizonak ez zuela ezer egitekorik leku hortan. Landdera denetan da eta ez baduzu dena aintzinetik ongi pentsatua biziki gaizki bukatzen ahal da. Gorputza andatzen da abiadura handian, hotza, unadura eta oxigeno faltagatik.

6.400 metrotan uragan dugu hilabete bat baino gehiago eta hori ez da errega izan. -20 graduko tenperaturak jasan behar dira egunero eta horrek asko higatzen du.

